

***TXOSTENA: NAFARROAKO FORU
KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN
2020. URTEKO ARAUGINTZA PLANA
GAUZATZEAREN EBALUAZIOA.***

AURKIBIDEA


AURKIBIDEA	2. or.
I. EBALUAZIOA: SARRERA	3. or.
1. <i>Urteko araugintzaren plangintza</i>	3. or.
2. <i>2020ko Araugintza Plana</i>	4. or.
3. <i>Ebaluazioari buruzko txostena</i>	5. or.
II. 2020KO ARAUGINTZA PLANA GAUZATZEA	8. or.
1. <i>Orokorrean</i>	8. or.
2. <i>Zehaztuta</i>	12. or.
Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	
13. OR.	
Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako	
Departamentua	17. OR.
Lurralde Kohesiorako Departamentua	20. OR.
Ekonomia eta Ogasun Departamentua	22. OR.
Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua	25. OR.
Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua	27. OR.
Hezkuntza Departamentua.....	27. OR.
Eskubide Sozialetako Departamentua	30. OR.
Osasun Departamentua	33. OR.
Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako DEPARTAMENTUA	48. OR.
Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua	50. OR.
Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua	51. OR.
Kultura eta Kirol Departamentua	55. OR.
III. ONDORIOAK	57. or.
1. <i>Lehenengoa</i>	57. or.
2. <i>Bigarrena</i>	59. or.
3. <i>Hirugarrena</i>	60. or.

I. EBALUAZIOA: SARRERA

1. Urteko araugintzaren plangintza.

Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren urteko araugintza plana plangintza orokorreko tresna da; beraren bidez hurrengo urtean zehar onetsi nahi diren arau nagusiak proposatzen dira. Urteko araugintza plana onetsi ondoren argitaratu egiten da, herritarrek aldez aurretik eskura eduki dezaten legegintzako ekitaldian onetsi nahi diren arauen berri ematen duen dokumentu informatiboa.

Horrez gainera, araugintza planean onetsi gabeko arau batzuk ere agertzen dira, hain zuzen ere unitateek eta organoek kronologikoki programatu behar dituztenak planaren aldian gauzatzeko.



Azkenik, urteko araugintza planaren atal batean bertan ezarritakoa zenbateraino bete den aztertzen da. Horri esker Administrazioak gardentasunaren printzipioa eta kontu eman beharra betetzen ditu, ebaluazio honen bidez herritarrek jakin baitezakete Administrazioak bere aurreikuspenak bete dituztenez. Gainera, ebaluazio horretan oinarrituta legegintza bideratzeko erabakiak hartzen ahal ditu.

2. 2020ko Araugintza Plana

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, herri administrazioen administrazio prozedura erkideari buruzkoak, 132. artikuluan ezartzen duen bezala, herri administrazio bakoitzak araugintza plana egin behar du urtero; bertan hurrengo urtean onesteko asmoa daukan legeen edo arauen ekimenak azaldu behar dira. Onetsi ondoren urteko araugintza plana administrazio publikoaren gardentasunaren atarian argitaratu behar da.

Foru Komunitatearen esparruan, martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru Sektore Publiko Institutuzionalari buruzkoak, 129. artikuluan ezartzen duenaren arabera, erregelamendu ahala eta legegintzako ahalmena gauzatuta, Gobernuak arauen kalitatearen eta erregulazio onaren printzipioen arabera jokatu du. Printzipio horietako bat segurtasun juridikoa da. Hori aintzat harturik, eta ordenamendu juridikoa aurreikusteko modukoa izatea bermatu nahian, arauak *ex ante* araugintza-plangintza hobetzea sustatzen du.

Ilido beretik, martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak 128. artikuluan xedatzen du Nafarroako Gobernuak araugintza plan bat onetsiko duela urtero, hurrengo urtean onesteko aurkeztuko diren lege edo erregelamendu ekimenak jasoko dituen. Gainera, onetsi ondoren, urteko araugintza plana Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko da. Azkenik, ezartzen du araugintza planaren indarraldia amaitutakoan azalpen publikoa emanen dela haren betetze-mailari buruz. Horrenbestez, betetze-mailari buruzko txostena ere Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu beharko da, herritarrek jakin dezaten zer egin duen Nafarroako Gobernuak araugintzaren esparruan.

Aurreko guztiarekin bat etorriz, 2019ko abenduaren 27an Nafarroako Gobernuak erabaki zuen onestea 2020ko Araugintza Plana (hemendik aurrera 2020ko AP edo Plana); Plana erabaki horren eranskinean azaltzen da. Planaren egitura bat dator departamentuen mailako egitura organikoarekin, eta bertan departamentu bakoitzak Planaren indarraldian onesteko asmoa daukan lege eta erregelamendu ekimenei

buruz emandako informazioa biltzen da. Gainera, erabaki hori eta eranskina Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratzeko agintzen da. Nolanahi ere, bi dokumentu horiek web orri honetan eskuratzen ahal dira:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/gardentasuna/urteko-araudia-plana>

3. Ebaluazioari buruzko txostena.

Nafarroako Gobernuaren 2019ko abenduaren 27ko erabakiaren xedapen-zatiaren bigarren apartatuan honako agindu hau ezartzen da 2020ko Araugintza Planaren ebaluazioari buruz, martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak 128. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorriz: departamentu bakoitzak dokumentu batean azaldu behar du nolakoa izan den Planaren betetze-maila bere esparru guztietan, eta zehaztu behar du Planean ezarritako arauetatik zein onetsi diren eta zein ez; onetsi ez direnak zergatik ez diren onetsi azaldu behar da. Dokumentazio hori aztertuta, departamentuen arteko koordinazio juridikoaren eta administratiboaren gaineko eskumena daukan zerbitzuari agindu behar zaio egin dezala ebaluazioari buruzko txostena Planaren aldia amaitzen denetik hiru hilabete pasatu baino lehen; ondoren Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu behar da. Urriaren 30eko 259/2019 Foru Dekretuak, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duenak, esleitzen dion esparru materiala eta funtzionala gauzatzeko, ebaluazio-txosten hori egiteko eskumena Lehendakartzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiko Gobernuaren Idazkaritzako eta Araugintzako Zerbitzuak dauka.

Gobernuaren erabakiaren xedapen-zatiarekin bat etorriz, eta ebaluazio-txostena egiteko behar den informazio guztia biltzeko, Koordinazio Atalak Nafarroako Gobernuko idazkaritza tekniko nagusi guztiei eskatu zien baliabide telematikoen bidez bidaltzeko 2020ko Araugintza Planaren betetze-mailaren berri ematen duen dokumentua, honako hauek xehetasunak banakatuta:

- Planean aurreikusitako arauetatik 2020. urtean onetsi direnak.

- Planean aurreikusitako arauetatik 2020. urtean onetsi EZ direnak (egonez gero). Halakorik egon bada, zergatik ez den onetsi azaldu behar da.
- Planaren eranskinean ez agertu arren onetsi diren arauak.

Eskatutako dokumentazio osoa jaso ondoren Gobernuaren Idazkaritzako eta Araugintzako Zerbitzuak ebaluazio-txosten hau egin zuen 2020ko Araugintza Planaren betetze-mailari buruz. Printzipioz, txosten honen xedea da azaltzea zenbateraino gauzatu den legegintzaren plangintzan ezarritakoa. Hala ere, dokumentu honen zehar adieraziko den bezala, COVID-19aren pandemiak ekarri duen osasun-krisiak administrazio publiko guztien jardunean izan du eragina, bai eta Foru Administrazio Publikoan eta, jakina, horren legegintzako aurreikuspenetan ere. Izan ere, epealdi administratiboan etendura¹, egiteko horren ardura duten langile publikoetako batzuk etxean bakartuta egotea, taldeek bilera presentzialak eta organoek saioak egiteko eragozpenak eta beste lehentasun handiagoko beste beharrian batzuei (legegintzakoak zein bestelakoak) arreta eman behar izatea kontuan hartu beharreko faktoreak dira Nafarroako Gobernuaren 2020. urteko araugintzaren emaitzak ebaluatzeko, eta horren guztiagatik ezinbestekoa izan da 2020ko Araugintza Planean aurreikusitako helburuen ordeztze beste batzuk ezartzea larrialdiak agintaritzea administratiboari eta, orokorrean, langile publiko guztien jardunari ezarritako ataka gaiztoaren ondorioz.

Aipatu behar da honako hau Foru Administrazio Publikoak martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 128. artikulua betetzeko egin duen araugintzaren ebaluazioari buruzko lehen txostena dela. Aurreko urteetako araugintza planak urriaren 1eko 39/2015 Legearen 132. artikuluan itzalpean baino ez ziren egin eta ez zen egin haien ebaluazioari buruzko txostenik, lege horrek ez baitzuen halakorik arautzen. Eskema berria askoz egokiagoa da, ezartzen baitu arauak plangintza baten ondoren onetsi behar direla eta gero, gauzatutakoan, helburuak bete direnez ebaluatu behar dela eta emaitzen berri eman behar dela ebaluazio-txostenaren bitartez. Ikuspegi kronologikoa aplikatuta, arau baten plangintza haren izapideen eta onespeneren prozeduraren aurretik egiten da eta ebaluazioa zikloaren amaieran egiten da, hau da, haren

¹ 463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratu zuena; hirugarren xedapen gehigarria. Maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuaren xedapen indargabetzaile bakarraren bigarren apartatuak indargabetu du.

aplikazioa eraginkorra izan denez eta beraren helburuak lortu direnez ebazteko. Eskema honetan, ebaluazioa osatzeko ezinbestekoa da txostenean kontuan edukitzea Planean aurreikusita ez egon arren onetsi diren legegintzako produktuak, batez ere aintzat hartu behar delako, geroago azalduko den bezala, koronabirusaren kontrako borrokak eragin handia izan duela botere betearazle eta botere legegile guztien lehentasunetan, ez Nafarroako Foru Komunitatearen lehentasunetan soilik.

Azaldu den bezala, ikuspegi materialera etorria, ebaluazio-txosten honetan aztertzen da nola aplikatu den 2020ko Araugintza Plana. Hain zuzen ere, batetik aztertzen da plan horretan ezarritako proposamenen gauzapen-maila (eta, beraz, zenbat geratu den bete gabe), hau da, Planean ezarritako legegintzako ekimenetatik zenbat onetsi diren Planaren aldian (2020ko abenduaren 31ra arte) eta nolakoa den beren balorazioa, eta bestetik Planean aurreikusi gabeko zenbat ekimen onetsi diren. Beraz, txosten honen esparrutik kanpo daude 2020ko urtarrilaren 1a baino lehen eta urte bereko abenduaren 31az gero onetsitako proposamen guztiak.


Egiturari dagokionez, txosten honetan hautatu da datuak departamentuka xehatzea, 2020ko Araugintza Planean egin den bezala, uste baita horrela ebaluazioaren edukiaren ikuspegi bateratuagoa eta homogeenagoa lortzen dela, ebaluatutakoarekiko zuzeneko erlazioarekin egiten da eta. Gogoan eduki behar da txosten honen helburua ez dela ebazpenik ematea araugintzaren kalitateaz, ez abagune politikoari dagozkion gaiez jardutea, baizik eta ebaluatzea zenbateraino bete diren 2020ko Araugintza Planaren eranskinean ezarritako aurreikuspenak, beti ere kontuan hartuta 2020ko ekitaldian onetsi nahi izan diren lege eta erregelamendu ekimenei buruz departamentuek emandako informazioa biltzen dela bertan eta, halaber, betetze-mailaren analisirako ere departamentuek emandako informazioa erabili dela.

II. 2020KO ARAUGINTZA PLANA GAUZATZEA

1. Orokorrean.

Planaren eranskinean 2020ko aldian onetsi nahi ziren **95** arau ageri dira. Xehetasunak geroago emanen dira. Banakapena (ikus grafikoa):

- 22 foru lege (FL)
- 68 foru dekretu (FD)
- 5 foru agindu (FA); erregelamendua ezartzen dute.



2021eko urtarrilaren 1erako 95 arau horietatik **16** onetsita zeuden:

- 8 foru lege.
- 6 foru dekretu
- 2 foru agindu

Kalkulu azkarra eginda, aurreikusitakoaren % 16,84 baino ez da bete. Hala ere, eta aurrean aipatu den bezala, COVID-19aren ondoriozko osasun-krisia dela eta gertatutakoa lotuta dago pandemiak eragin dituen gainerako jarduketa administratibo guztiekin, eta horien artean nabarmendu beharrekoa izan da egoerara moldatzeko egin den araugintzako ahalegin handia, 2020ko Araugintza Plana onetsi zenean aurreikusi ez zena. Hain zuzen ere, Planean aurreikusi gabeko **67** arau onetsi dira 2020an; hona:


- 8 foru lege
- 12 foru dekretu
- 47 foru agindu

Horrez gainera, diziplina anitzeko zenbait arau ere onetsi dira:


- Lehendakariaren foru dekretuak² (LFP), Nafarroako Foru Komunitatean neurri prebentiboak ezartzen dituztenak SARS-CoV-2 koronabirusaren gaixotasunaren hedapena eragozteko; onelakoak dira onetsitako 31 dekretuetatik 6: 24/2020, 25/2020, 26/2020, 28/2020, 29/2020 eta 31/2020.
- Foru lege-dekretuak (FLD). Hamar (10) dira, eta bat izan ezik beste guztiak zuzenean lotuta daude pandemiarekin. Presazko neurriak ezartzen dituzte koronabirusak ekarri duen osasun-krisiaren eraginari aurre egiteko.

Horrenbestez, Planetik kanpoko arau horiek bertan aurreikusten direnei gehituz gero, guztirako emaitza (99) Administrazioak onetsi nahi zituenen kopurua (95) baino gehiago da.




² *Gobernuko unitate eskuordea, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren 2.2. artikuluan ezarritakoaren babesean (errege dekretu horren bidez alarma-egoera deklaratu zen SARS-CoV-2ak eragindako kutsatzeen hedapena geldiarazteko).*




Hala ere, gogoan eduki behar da arau bakoitzak bere ezaugarriak dituela (konplexutasuna eta edukia) eta ez dagoela modurik horien berri emateko goikoa bezalako alderatze batean. Dena den, zenbaki-analisi hutsa (% 104,21) estrapolatu ezin bada ere, ongi azaltzen du zergatik ez den egon modurik 2020ko Araugintza Planaren aurreikuspenen % 16,84 baino gehiago betetzeko. Kopuruetara etorruta, 2020ko Araugintza Planetik kanpo onetsitako arauak kontuan hartzen badira, onetsi gabe utzitakoen ehunekoa % 83,16tik erabat murrizten da, erabat bete arte hain zuzen, eta are gehiago ere, % 4,21eko gaindikina gertatzen da, hurrengo grafikoan ikusten den bezala:



Ondoko grafikoetan Planean ezarritako aurreproiektu eta proiektuetatik zenbat bete diren azaltzen da, arau-motaren arabera xehatuta.



COVID-19aren ondorioz onetsitako aparteko legeriaz denaz bezainbatean, nabaria da foru agindua lehenetsi direla; gehienak goragoko mailako arauen itzalpean onetsi dira, haien gaikuntzarekin, alegia:




2. Zehaztuta.

Jarraian 2020ko Araugintza Planeko aurreikuspenen betetze-maila zehaztuko dugu. Aurrean aipatu den bezala, ebaluazioa Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren egitura funtzionaleko departamentuen arabera egin da, Planean ezartzen den egiturari jarraikiz. Departamentu³ bakoitzean, datuen tratamendua hiru ataletan zatitu da:

- 1. 2020ko Araugintza Planean departamenturako aurreikusitako arauak; urtean benetan onetsitakoak zehazten dira.
- 2. Gainerako arauak ez onesteko arrazoiak.
- 3. 2020ko Araugintza Planean aurreikusita ez egon arren 2020an onetsi diren arauak.

³ Arau honetan ezarritako lehentasun-ordena hartu da aintzat: 22/2019 Foru Dekretua, abuztuaren 6koa, Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariarena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen egitura ezartzen duena; bigarren xedapen gehigarria.

Araugintza, Departamentuka xehatuta



1. LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEN, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUA

Foru legeen aurreproiektuen kodea **FL** da, foru dekretuen proiektuena **FD** eta foru aginduena **FA**. Onetsitakoak **letra lodiz** nabarmenduta daude.

1.1. Planean aurreikusitakoak:

FL	Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioaren edo Foru Berriaren testu bategina onartzen duena. ONETSI DA.
FL	Nafarroako Fundazioei buruzkoa. ONETSI DA.
FL	Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legea aldatzen duena.
FL	Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen duena, zenbait departamenturekin lankidetzan.

FD	Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko Foru Legea garatzen duena.
FD	Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legea garatzen duena.
FD	Herritarren Parte-hartzerako Nafarroako Kontseilua arautzen duena.
FD	Haurrek eta Nerabeek Parte Hartzeko Kontseilua sortzen duena.
FD	Herritarren arretarako bulegoak arautzen dituena.
FD	Nafarroako Administrazio Auzitegiaren Erregelamendu Organikoa, otsailaren 9ko 31/1998 Foru Dekretuak onetsia, aldatzen duena.
FD	Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean gora jotzeko errekurtsioa aurkezteko prozeduraren erregelamendua, maiatzaren 24ko 173/1999 Foru Dekretuak onetsia, aldatzen duena.
FD	Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan sartu eta bertako lanpostuak betetzeko deialdietako merezimenduen balorazioa arautzen duena.
FD	Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arteko berdintasunerako plana onesten duena.
FD	Uztailaren 4ko 158/1984 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen ordainsarien behin-behineko erregelamendua aldatzen duena.
FD	Azaroaren 4ko 225/2002 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileek txandaka, gauzez eta jaiegunetan lan egiten dutenean hartu beharreko diru konpentsazioak arautzen dituena, aldatzen duena.
FD	Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra arautzen duena, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuarekin lankidetzan.

1.2. Planeko gainerako arauak ez onesteko arrazoiak.

Hona Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazi dituen arrazoiak:

Foru Legea	Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legea aldatzen duena.	Ez da egin	Ez dago presazko beharizanik; beraz, Foru Legea dagoen moduan utziko da.
------------	---	------------	--

Foru Legea	Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen duena, zenbait departamenturekin lankidetzan.	Ez da egin	COVID-19aren larrialdiak eragin dio.
Foru Dekretua	Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko Foru Legea garatzen duena.	Tramitazioan	Aurreko kontsulta publikoa egin da. Proiektua gelditu da, lehentasuna eman baitzaio gobernu irekiaren lehen plana onesteari.
Foru Dekretua	Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legea garatzen duena.	Ez da egin.	Gelditu egin da, lehentasuna eman baitzaio gobernu irekiaren lehen plana onesteari.
Foru Dekretua	Herritarren Parte-hartzerako Nafarroako Kontseilua arautzen duena.	Ez da egin.	Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko Foru Legea garatzen duen erregelamendua sartzeko aukera aztertzen ari da.
Foru Dekretua	Haurrek eta Nerabeek Parte Hartzeko Kontseilua sortzen duena.	Ez da egin.	Lehentasuna eman zaio Nafarroako Gobernuaren gobernu irekiaren lehenengo plana prestatzeari. Haurrek eta nerabeek parte hartzeko proiektu bat lantzen ari gara eta dekretu hau horren barruan dago.
Foru Dekretua	Herritarren arretarako bulegoak arautzen dituena.	Ez da egin.	Esparru honetan, 2020. urtean lehentasuna eman zaio herritarrek Covid-19aren inguruan eduki dituzten zalantzak, osasunekoak ez bestelakoak, argitzeari.
Foru Dekretua	Nafarroako Administrazio Auzitegiaren Erregelamendu Organikoa, otsailaren 9ko 31/1998 Foru Dekretuak onetsia, aldatzen duena.	Ez da egin.	COVID-19aren larrialdiak eragin dio. Ez da lehentasuneko.
Foru Dekretua	Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean gora jotzeko errekursoa aurkezteko prozeduraren erregelamendua, maiatzaren 24ko 173/1999 Foru Dekretuak onetsia, aldatzen duena.	Ez da egin.	COVID-19aren larrialdiak eragin dio. Ez da lehentasuneko.
Foru Dekretua	Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan sartu eta bertako lanpostuak betetzeko deialdietako merezimenduen balorazioa arautzen duena.	Tramitazioan	Euskaren balorazioari buruzko erabakia falta da.

Foru Dekretua	Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arteko berdintasunerako plana onesten duena.	Tramitazioan	Epe ertainerako proiektua da. Aurten Negoziazio Batzordea sortu da eta aurreko diagnostikoa prestatzen ari gara.
Foru Dekretua	Uztailaren 4ko 158/1984 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen ordainsarien behin-behineko erregelamendua aldatzen duena.	Ez da egin.	Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak ezartzen dituen mugek eta funts gehigarrien banaketak ez dute ematen aukerarik beste kontzeptu batzuk sartzeko.
Foru Dekretua	Azaroaren 4ko 225/2002 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileek txandaka, gauzez eta jaiegunetan lan egiten dutenean hartu beharreko diru konpentsazioak arautzen dituena, aldatzen duena.	Tramitazioan	Sindikatuarekin negoziatzen.
Foru Dekretua	Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra arautzen duena, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuarekin lankidetzan.	Tramitazioan	Kontsulta publikoa eta informazio publikoa egin dira. Testua itxita dago; Justizia Zuzendaritza Nagusiaren azken tramitazioa falta da.

1.3. Planetik kanpo onetsitako arauak

Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak jakinarazi duenez, pandemiak eragin handia izan du lehentasunetan eta araugintzako lanetan. Adierazi du ekitaldian zehar Departamentuak Idazkaritza Tekniko Nagusiaren bitartez eta beste departamentu batzuekin lankidetzan bederatzi proiektu proposatu dituela (1 - 9) Nafarroako Gobernuak osasun-krisiaren ondorioei aurre egiteko presazko neurriak ezartzeko foru lege-dekretuak onesteko. Nafarroako Parlamentuak denak baliozkotu ditu. Halaber, adierazi du Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak hamahiru foru agindu (zk: 47, 48, 51, 54, 59, 61, 63, 69, 71, 72, 117, 14 eta 144) eman dituela egungo egoera bereziaren inguruko gai hauei buruz: prebentzio-neurriak, oinarrizko zerbitzu publikoak, jarduera presentziala lantzentroetan, langileak mailakaturik itzultzea, herritarren arretarako bulegoak irekitzea, telelana, eta abar.

2020ko Araugintza Planean aurreikusi gabeko beste jarduketa batzuei dagokienez, Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazi du ezen, Departamentuak proposaturik,

irailaren 16ko 10/2020 Foru Lege-Dekretuaren bidez langileen arloko presazko neurriak onetsi zirela. Horrez gainera, lehendakariaren 6 foru dekretu prestatu ziren, Osasun Departamentuarekin lankidetzan, COVID-19aren pandemiaren kontrako borrokarako neurriak ezartzeko.

2. LURRALDE ANTOLAMENDUKO, ETXEBIZITZAKO, PAISIAKO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO DEPARTAMENTUA

2.1. Planean aurreikusitakoak:

FL	Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina aldatzen duena.
FL	Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena.
FD	Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzetan bizi ahal izateko gutxieneko baldintzak arautzen dituena.
FD	Hirigintza planeamendua prestatu eta aplikatzearen arloan, administrazioen arteko lankidetzara arautzen duena.
FD	Nafarroan industrialdeak eta industria jarduerak ezartzeko arauak onesten dituena.
FD	Etxebizitzaren arloko jarduketara babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretua aldatzen duena.

2.2. Planeko gainerako arauak ez onesteko arrazoiak.

Hona Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazi dituen arrazoiak:

- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina aldatzen duen Foru Legea:

Joan den urtean NASUVINSARI enkargua eman zitzaion honako lan hauetan laguntza teknikoa emateko:

- Nafarroako Lurraldeko Estrategia (NLE) egoera identifikatzeko eta Europako, Espainiako eta Nafarroako erronka berrietara moldatu behar denez zehazteko diagnostikoa egiteko eta horren arabera Estrategia

berrikusteko proposamena prestatzeko lanen koordinazio tekniko eta jarraipena.

- Lurraldearen antolamendurako planak (LAP) eguneratzearekin zuzenean lotutako lanak egitea.

NLEri dagokionez, lan horiei esker (diagnostikoa eta berrikusteko proposamena) hausnarketa egin ahal izan dugu Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testuATEGINA aldatzen duen Foru Legeak arlo honetan daukan irismenaz eta ondorioztatu dugu ezinbestekoa dela lege hori osorik berrikustea eta, beraz, beste arau-testu bat prestatzea. Antzeko ondorio batera iritsi gara LAPetan arautzen diren gai batzuk aztertu ondoren, ezinezkoa baita esparru batzuetan agertzen diren arazoak LAPak eguneratuz konpontzea. Horretarako goragoko lege-mailako araua behar da.

Beste alde batetik, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testuATEGINA ikuspegi globalagoarekin aztertu behar da, bertan ezartzen dena Estatuko oinarrizko arautegira moldatu behar da eta arazo berri batzuei heldu behar zaie. Horregatik guztiagatik, hobe da foru lege berria prestatzea dagoenari aldaketa puntuala egin baino, aurreikusita zegoen bezala.

Azkenik, testu berria sortzeko egin beharreko berrikuspen globala egiteko lantaldeak eratu behar dira, Departamentuko teknikariek bilerak eta batzarrak egin behar dituzte eta bilerak egin behar dira entitate eta agente interesdunekin. Hala ere, egun bizi dugun pandemiak ekintza horiek guztiak eragotzi ditu.

- Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea:

Arlo honetan eragin handia edukiko duten neurriak planteatzen dira (Estatuan ere bai, abian baitago etxebizitzaren legea prestatzeko prozesua) eta horiek ezarri baino lehen ezinbestekoa da hausnarketa artatsua egitea beren bideragarritasunaz eta foru erregulazioari heltzeko modurik hoberenaz.

- Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretua aldatzen duen Foru Dekretua.

Kasu honetan ere Etxebizitzaren Foru Legearen proiektuaz adierazitakoa aplikatzen ahal da. Gainera, laster Europako Funtsak jasoko dira eta, zuhur jokatuta, hobe genuke itxaron funts horiek nola gauzatzen diren zehaztu arte 61/2013 Foru Dekretua egoera berrira moldatzeko.

- Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzetan bizi ahal izateko gutxieneko baldintzak arautzen dituen Foru Dekretua.

Foru dekretu honen prestakuntza abian da dagoeneko. Hain zuzen ere, egin da jada aurreko kontsulta, 39/2015 Legeak 133. artikuluan arautzen duena, 2019ko maiatzaren 7tik 28ra bitartean. Horren ondoren testuaren zirriborroa egin da; aginduta dagoen bezala, parte-hartze publikoaren prozesua egin zen 2020ko uztailaren 3tik irailaren 21era bitartean. Gaur egun, egindako ekarpenei erantzuteko txostenaren fasean dago. Hori dela eta, ekarpen asko egin dira (40) eta ekarpenak eta arautu nahi den gaia bera oso konplexuak dira; horregatik guztiagatik, foru dekretu hau ezin onetsi izan da 2020. urtean. Hala ere, 2021ean onesteko asmoa dago, 2021eko Araugintza Planean adierazten den bezala.

- Hirigintza planeamendua prestatu eta aplikatzearen arloan, administrazioen arteko lankidetzak arautzen duen Foru Dekretua.

Iaz zirriborro bat landu zen eta Zuzendaritza Nagusiak baliozkotu du dagoeneko. Nolanahi ere, pandemiaren ondoriozko egoera berrian ezin izan dira egin tramiteak eta horregatik aurten tramitatzeko eta onesteko asmoa dago.

- Nafarroan industrialdeak eta industria jarduerak ezartzeko arauak onesten dituen Foru Dekretua.

LAPak berrikusteko eta eguneratzeko lanetan bi gauzak ohartu gara: batetik, nahitaez aldatu behar da arautegia jarduerak lurzoru urbanizaezinetan ezarri ahal izateko; bestetik, horretarako ez da nahikoa foru dekretua. Horrenbestez, lehenbizi lege-mailako erregulazioa onetsiko da eta gero horretaz baliatuz erregelamendua prestatzen ahalko da.

2.3. Planetik kanpo onetsitako arauak

Idazkaritza Tekniko Nagusiaren ustez honako arau hauetan ezartzen diren neurriak nabarmendu behar dira: 2/2020 Foru Lege-Dekretua, martxoaren 25ekoa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko; 5/2020 Foru Lege-Dekretua, maiatzaren 20koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

3. LURRALDE KOHESIORAKO DEPARTAMENTUA

3.1. Planean aurreikusitakoak:

FL	2021-2024 aldirako Toki Inbertsioen Planarena.
FL	Uraren Goi-hornidurako Azpiegituretarako Inbertsioen Planarena.
FL	Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan 2021. urtean edukiko duten partaidetzaren funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituen.
FL	Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformari buruzko otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea aldatzen duena.
FD	2021-2024 aldirako Toki Inbertsioen Planaren Foru Legea garatzen duen erregelamendua onesten duena.
FD	Nafarroako toki ogasunen aurrekontuari eta gastu publikoari buruzkoa.
FD	Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitatearen Instrukzio Orokorra onesten duena.
FD	Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Erraztuaren Instrukzioa onesten duena.
FD	Nafarroako toki erakundeen aurrekontu egitura onesten duena.

3.2. Planeko gainerako arauak ez onesteko arrazoiak.

Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazi duenaren arabera, pandemiak eta 2020ko martxoaren 14ko alarma-egoeraren adierazpenak 2020rako ezarritako araugintza proiektuak zapuztu zituzten.

3.3. Planetik kanpo onetsitako arauak

Adierazpen horretan bertan Idazkaritza Tekniko Nagusiak dio ezen, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren eskumeneko esparruan, toki erakundeen beharrezan eta gaur egungo osasun-krisia eta krisi ekonomikoa kontuan izanik, honako arau hauek onetsi direla:

- 2/2020 Foru Legea, urtarrilaren 23koa, honako hau aldatzen eta indarraldia luzatzen duena: 18/2016 Foru Legea, abenduaren 13koa, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duena.
- 3/2020 Foru Legea, otsailaren 27koa, toki ogasunek transferentzia arruntan eta beste laguntza batzuen kontzeptuetan Nafarroako tributuetan duten partaidetzaren funtsaren 2020. urteko zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituena.
- 7/2020 Foru Legea, apirilaren 6koa, koronabirusaren (COVID-19) osasun-krisiak eragindako inpaktuari erantzuteko premiazko neurriak onartzen dituena (13., 14. eta 15. artikulua).
- 13/2020 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, 25 milioi euroko aparteko kreditu bat eman, arautu eta banatzekoa, Nafarroako Toki Ogasunen Partaidetzaren Funtsaren kargura, COVID-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartu behar izan diren presako neurri urgenceengatik toki entitateen dituzten beharrei erantzuteko xedearekin.
- 22/2020 Foru Legea, abenduaren 29koa, martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea, Nafarroako toki ogasunei buruzkoa, aldatzen duena.

Beste alde batetik, Garraioen Zuzendaritza Nagusiaren eta Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren eskumeneko esparruetan, ekainaren 17ko 6/2020 Foru Lege-Dekretuak, premiazko neurriak onesten dituenak koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko, 2 - 4 bitarteko artikuluetan aparteko zenbait neurri ezartzen ditu erabilera orokorreko hiriarteko errepideko bidaiari-garraio publiko erregularraren zerbitzuen emakida-kontratuei buruz eta azken xedapenetan zazpigarrenean xedatzen da aldaketa partziala aplikatzen zaiola Nafarroako errepideei buruzkoa martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legeari.

4. EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA

4.1. Planean aurreikusitakoak:

FL	Zergen arloko neurriei buruzkoa. ONETSI DA.
FL	Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. ONETSI DA.
FL	2021-2025 aldirako Nafarroako Estatistika Planari buruzkoa.
FL	Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. ONETSI DA.
FL	Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio eta haren erakunde autonomoetako tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea aldatzen duena.
FD	Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren entitate instrumentalak arautzen dituenak.
FD	Nafarroako Kontratazioaren Ataria, Nafarroako Lizitazio Elektronikoaren Plataforma eta Kontratazio Publikoaren Batzordearen ardurapeko beste prozedura eta erregistro batzuk arautzen dituenak.
FD	Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko abintestato jarauntsien espedienteak tramitatzeko prozedura arautzen duena.
FD	85/2018 Foru Dekretua, urriaren 17koa, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra egintzak administrazio bidean berrikusteari dagokionez garatzeko Erregelamendua onesten duena, aldatzen duena. ONETSI DA.
FD	165/1999 Foru Dekretua, maiatzaren 17koa, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren erregelamendua onesten duena, aldatzen duena.
FD	16/2004 Foru Dekretua, abenduaren 26koa, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren erregelamendua onesten duena, aldatzen duena.
FD	177/2001 Foru Dekretua, uztailaren 2koa, zerga-bilketaren erregelamendua onesten duena, aldatzen duena.
FA	Autolikidazioak eta aitoren informatiboak aurkezteari buruzkoa.
FA	Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboaren araubidea eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erraztua 2020rako garatzen dituenak. ONETSI DA.

4.2. Planeko gainerako arauak ez onesteko arrazoiak.

Hona Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazi dituen arrazoiak:

Foru legearen proiektua	<p>2021-2025 aldirako Nafarroako Estatistika Planari buruzkoa. Ez da onetsi.</p> <p>COVID-19ak sortu duen egoera dela eta, 2021-2024 aldirako Nafarroako Estatistika Plana egiteko gidalerroak eta egutegia ezartzen dituen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren Foru Aginduan ezarritako egutegiaren arabera Estatistika Kontseiluak 2020ko maiatzaren 26ko bilkuran onetsi behar zuen Plana, baina azaroaren 27ra atzeratu behar izan zen, ez baitzegoen astirik lanak garaiz egiteko, batez ere estatistika batzordeen parte-hartzearen inguruko lanak.</p> <p>Gaur egun, aurreproiektuaren jendaurreko erakustaldia amaitu da eta laster Gobernuari helaraziko zaio, onets dezan eta Parlamentuko izapideei ekin diezaien.</p>
Foru legearen proiektua	<p>Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio eta haren erakunde autonomoetako tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketen izapidean Nafarroako Parlamentuan.</p>
Foru dekretua	<p>Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren entitate instrumentalak arautzen dituena. Urtean zehar entitate instrumentalen foru dekretuaren izapideetan aurrera egin ondoren, azkenean erabaki da Kontratazio Batzordearen onespena atzeratzea (2020ko azarorako aurreikusita zegoen, bilkurako aztergaien zerrendan eta aktan agertzen den bezala), ikusirik nola aldaketak ari diren gertatzen Estatuko arautegian Next Generation funtsak direla eta. Uste da hobe dela itxarotea beste hil bat edo beste erabaki eguneratuagoa eta egonkorragoa hartu ahal izateko.</p>
Foru dekretua	<p>Nafarroako Kontratazioaren Ataria, Nafarroako Litzazio Elektronikoaren Plataforma eta Kontratazio Publikoaren Batzordearen ardurapeko beste prozedura eta erregistro batzuk arautzen dituena. Ez da onetsi Covid-19aren ondoriozko osasun-krisiak Nafarroako Kontratazioaren Atarian, Nafarroako Litzazio Elektronikoaren Plataforman eta Kontratazio Publikoaren Batzordearen ardurapeko beste prozedura eta erregistro batzuetan espedienteen izapideak egiteko prozedura arautzen duen Foru Dekretuaren izapideetan eduki duen eraginaren erruz.</p>
Foru dekretua	<p>Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko abintestato jarauntsien espedienteak tramitzeko prozedura arautzen duena. Ez da onetsi Covid-19aren ondoriozko osasun-krisiak abintestato jarauntsien espedienteak izapidetzeko prozedura arautzen duen Foru Dekretuaren izapideetan eduki duen eraginaren erruz.</p>
Foru dekretua	<p>85/2018 Foru Dekretua, urriaren 17koa, Tributuak buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra egintzak administrazio bidean berrikusteari dagokionez garatzeko Erregelamendua onesten duena, aldatzen duena. Izapidetzen ari da (Nafarroako Kontseiluaren irizpenaren zain).</p>
Foru dekretua	<p>165/1999 Foru Dekretua, maiatzaren 17koa, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren erregelamendua onesten duena, aldatzen duena. Ez da astirik izan heltzeko.</p>

Foru dekretua	16/2004 Foru Dekretua, abenduaren 26koa, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren erregelamendua onesten duena, aldatzen duena. Ez da astirik izan heltzeko.
Foru dekretua	177/2001 Foru Dekretua, uztailaren 2koa, zerga-bilketaren erregelamendua onesten duena, aldatzen duena. Garatzen ari da.
Foru agindua	Autolikidazioak eta aitorten informatiboak aurkezteari buruzkoa. Garatzen ari da.

4.3. Planetik kanpo onetsitako arauak

Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazitakoarekin bat etorritz, jarraian Nafarroako Aldizkari Ofizialean 2020. urtean argitaratutako zergen arloko xedapenen zerrenda txertatu da (banaka zein beste departamentu batzuekin lankidetzan egindakoak).

- 1) [13/2020 Foru Agindua](#), otsailaren 4koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, Zerga Berezien Erregelamenduaren 26. artikuluan xedatutakoa garatzeko arauak onesten dituena (erregelamendu hori edari deribatuentzat aurreikusitako marka fiskalei buruzko uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen) (NAO, 35. zk., 20-02-20koa)
- 2) [1/2020 Legegintzako Foru Dekretua](#), otsailaren 19koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, zeinaren bidez aldatzen baitira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua, martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsia (NAO, 42. zk., 20-03-02koa)
- 3) [3/2020 Foru Legea](#), otsailaren 27koa, toki ogasunek transferentzia arrunten eta beste laguntza batzuen kontzeptuetan Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2020. urterako ezartzen dituena (NAO, 44. zk., 20-03-04koa)
- 4) [1/2020 Foru Lege-Dekretua](#), martxoaren 18koa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko; lehenengo xedapen gehigarria, azken xedapenetako bigarrena eta azken xedapenetako hirugarrena (NAO, 58. zk., 2020-03-19koa)
- 5) [2/2020 Foru Lege-Dekretua](#), martxoaren 25ekoa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. III. titulua (12. eta 13. artikulua), bigarren xedapen gehigarria, xedapen indargabetzaile bakarra eta azken xedapenetako hirugarrena (NAO, 65. zk., 2020-03-26koa)
- 6) [6/2020 Foru Legea](#), apirilaren 6koa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko (NAO, 76. zk., 2020-04-9koa)
- 7) [7/2020 Foru Legea](#), apirilaren 6koa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko (NAO, 76. zk., 2020-04-9koa)
- 8) [3/2020 Foru Lege-Dekretua](#), apirilaren 15ekoa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko; hirugarren xedapen gehigarria eta xedapen indargabetzaile bakarra (NAO, 80. zk., 2020-04-17koa)
- 9) [4/2020 Foru Lege-Dekretua](#), apirilaren 29koa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko (NAO, 91. zk., 2020-05-4koa)
- 10) [5/2020 Foru Lege-Dekretua](#), maiatzaren 20koa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko; 3. artikulua (NAO, 111. zk., 20-05-25ekoa)
- 11) [6/2020 Foru Lege-Dekretua](#), ekainaren 17koa, premiazko neurriak onesten dituena koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko; IV. titulua eta azken xedapenetako lehena, bigarrena eta hirugarrena (NAO, 138. zk., 20-06-23koa)

- 12) [87/2020 Foru Agindua](#), ekainaren 29koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, aldatzen duena Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren azaroaren 18ko 54/2019 Foru Agindua, zerga berezien xedeko produktuen kontabilitatea nola eraman arautzen duena (NAO, 147. zk., 20-07-06koa)
- 13) [13/2020 Foru Legea](#), uztailaren 1ekoa, 25 milioi euroko aparteko kreditu bat eman, arautu eta banatzekoa, Nafarroako Toki Ogasunen Partaidetzaren Funtsaren kargura, COVID-19ak eragindako osasun publikoko arazoak direla-eta hartu behar izan diren presako neurri urgenteengatik toki entitateen dituzten beharrei erantzuteko xedearekin (NAO, 148. zk., 20-07-07koa)
- 14) [7/2020 Foru Lege-Dekretua](#), uztailaren 22koa, zeinaren bidez ohiz kanpoko prebentzio neurri batzuk hartzen baitira koronarabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren; azken xedapenetako lehena (NAO, 163. zk., 20-07-23koa)
- 15) [90/2020 Foru Agindua](#), uztailaren 15ekoa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez aldatzen baita Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren otsailaren 4ko 13/2020 Foru Agindua, Zerga Berezien Erregelamenduaren 26. artikuluan xedatutakoa garatzeko arauak onesten dituena (erregelamendu hori edari deribatuentzat aurreikusitako marka fiskalei buruzko uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen) (NAO, 168. zk., 20-07-30ekoa)
- 16) [8/2020 Foru Lege-Dekretua](#), abuztuaren 17koa, zeinaren bidez ohiz kanpoko neurriak onesten baitira Nafarroako Foru Komunitatean COVID-19aren kasu positiboen igoerak eragiten duen arrisku bereziko egoerari erantzuteko; laugarren xedapen gehigarria, azken xedapenetako lehena eta eranskina (NAO, 184. zk., 20-08-18koa)
- 17) [14/2020 Foru Legea](#), irailaren 1ekoa, zeinaren bidez ohiz kanpoko prebentzio neurri batzuk hartzen baitira koronarabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren; azken xedapenetako laugarrena (NAO, 201. zk., 20-09-7koa)
- 18) [131/2020 Foru Agindua](#), azaroaren 27koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak azaroaren 2an emandako 132/2017 Foru Agindua aldatzen duena. Foru agindu horren bidez, zehaztaperen normatibo eta tekniko batzuk arautu ziren balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Nafarroako Zerga Ogasunaren zerbitzu telematikoen bidez eramateko modua garatzeko, eta, orobat, tributuen arloko beste arau batzuk aldatu ziren (NAO, 285. zk., 20-12-10ekoa)
- 19) [21/2020 Foru Legea](#), abenduaren 29koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributuen neurri batzuk hartzeko eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu batagina aldatzeko (NAO, 304. zk., 20-12-31koa)

5. GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO DEPARTAMENTUA

5.1. Planean aurreikusitakoak:

FL	Trantsizio energetikoari buruzkoa.
FL	Sustapen ekonomikoko eremuei buruzkoa.
FL	Kontsumoari buruzkoa.
FL	Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legea aldatzen duena. ONETSI DA.

FD	Bitartekotza turistikoari buruzkoa.
FD	Kanpaleku turistikoei buruzko martxoaren 30eko 4/2009 Foru Dekretua aldatzen duena.

5.2. Planeko gainerako arauak ez onesteko arrazoiak.

Hona Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazi dituen arrazoiak:

Foru legearen proiektua	Trantsizio energetikoari buruzkoa.	Ez da onetsi: Ez da izapidetu. Proiektuaren edukia klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko legearen proiektuan txertatu da; proiektu hori Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua ari da izapidetzen Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren laguntzarekin.
Foru legearen proiektua	Sustapen ekonomikoko eremuei buruzkoa.	Ez da onetsi: 2021ean izapideak egiten jarraituko da. Aurkeztu diren alegazioak aintzat hartu eta bidezkoztat jo da berriz ere herritarrek parte hartzeko izapidea egitea.
Foru legearen proiektua	Kontsumoari buruzkoa.	Ez da onetsi: Prestakuntza-lanak egin dira. Lan asko dago egiteko eta 2021era arte luzatu behar izan da prestakuntza, urte horretan onestea aurreikusita egon arren.
Foru dekretua	Bitartekotza turistikoari buruzkoa.	Ez da onetsi: Abenduaren 16ko 19/2020 Foru Legeak, Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legea aldatzen duenak, aldatutako gai batzuk garatzen ditu. 2021ean izapideak egiten jarraituko da.
Foru dekretua	Kanpaleku turistikoei buruzko martxoaren 30eko 4/2009 Foru Dekretua aldatzen duena.	Ez da onetsi: Turismoaren Foru Legearen aldaketen baldintzapean dago. Beste alde batetik, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiak bere baliabideak erabili behar izan ditu sektore horretan COVID-19ak izan dituen ondorio kaltegarriari aurre egiteko neurriak ezartzeko.

5.3. Planetik kanpo onetsitako arauak.

Ez da onetsi Araugintza Planean hasieran ezarri gabeko araurik

6. MIGRAZIO POLITIKETAKO ETA JUSTIZIAKO DEPARTAMENTUA

6.1. Planean aurreikusitakoak:

FD	Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra arautzen duena, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuarekin lankidetzan.
----	---

6.2. Planeko gainerako arauak ez onesteko arrazoiak.

Hona Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazi dituen arrazoiak: izapideak geldotu egin dira, hein batean alarma-egoera indarrean dagoen artean epealdiak eten direlako, eta ezin izan da onetsi. Foru Dekretuaren proiektua Nafarroako Kontseiluari bidali zaio, bidezko irizpena eman dezan.

6.3. Planetik kanpo onetsitako arauak

Beste alde batetik, 2020ko Araugintza Planean ez egon arren, 82/2020 Foru Dekretua onetsi da, azaroaren 11koa, Nafarroako Justizia Kontseilua sortzen duena.

7. HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

7.1. Planean aurreikusitakoak:

FD	Ikasleak onartzeko arauak ezartzen dituen.
FD	Nafarroako hezkuntza sistemako hizkuntzak ikasteko programak arautzen dituen.
FD	Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroaren (NHBBZ) jarduna arautzen duena.

FD	Lanbide Heziketara moldatzen duena Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-esparruko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen erregelamendu organikoa, otsailaren 10eko 25/1997 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoa.
FD	Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioen funtzionamenduak sortzen dituen diru-sarrera eta gastuen araubidea ezartzen duena.
FD	66/2014 Foru Dekretua, abuztuaren 27koa, aldatzen duena; horren bidez pertsonak lan-espereztian edo prestakuntza bide ez-formaletan lortutako lanbide gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura Nafarroako Foru Komunitatean ezartzeko arauak eta horretaz arduratuko den antolaketa egitura finkatzen dira.

7.2. Planeko gainerako arauak ez onesteko arrazoiak.

Hona Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazi dituen arrazoiak:

FD	Ikasleak onartzeko arauak ezartzen dituen.	2020. urtean arau hau ez onesteko bi arrazoi egon dira: izapideak atzeratu dira COVID-19ak ekarri duen osasun-krisiaren ondorioz eta 3/2020 Lege organikoa onetsi da (abenduaren 29koa, maiatzaren 3ko Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena) eta ondorioz lege horretan ezartzen diren alderdi batzuk sartu behar izan dira foru dekretuaren testuan.
FD	Nafarroako hezkuntza sistemako hizkuntzak ikasteko programak arautzen dituen.	Arau hau ez onesteko arrazoia izan da izapideak atzeratu direla COVID-19ak ekarri duen osasun-krisiaren ondorioz .
FD	Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroaren (NHBBZ) jarduna arautzen duena.	2020. urtean arau hau ez onesteko arrazoia izan da itxaron behar izan dela 3/2020 Lege organikoa (abenduaren 29koa, maiatzaren 3ko Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena) indarrean jarri arte, zeren eta hezkuntzako ekitatearen inguruan kontuan eduki beharreko alderdi batzuk ezartzen baititu.
FD	Lanbide Heziketara moldatzen duena Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-esparruko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen erregelamendu organikoa, otsailaren 10eko 25/1997 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoa.	2020. urtean arau hau ez onesteko arrazoia izan da itxaron behar izan dela 3/2020 Lege organikoa (abenduaren 29koa, maiatzaren 3ko Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena) indarrean jarri arte eta Lanbide Heziketaren Lege berria onetsi arte (lege berriak foru dekretu honetan kontuan eduki beharreko alderdi batzuk arautuko ditu).
FD	Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioen funtzionamenduak sortzen dituen diru-sarrera eta gastuen araubidea ezartzen duena.	Arau hau ez onesteko arrazoia izan da izapideak atzeratu direla COVID-19ak ekarri duen osasun-krisiaren ondorioz .

FD	<p>66/2014 Foru Dekretua, abuztuaren 27koa, aldatzen duena; horren bidez pertsonen lan-espereztian edo prestakuntza bide ez-formaletan lortutako lanbide gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatze prozedura Nafarroako Foru Komunitatean ezartzeko arauak eta horretaz arduratuko den antolaketa egitura finkatzen dira.</p>	<p>Arau hau ez onesteko arrazoia izan da apirilaren 28ko 498/2020 Errege Dekretuaren eta 499/2020 Errege Dekretuaren bidez Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak eskumen batzuk eskualdatu dizkiola Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioari. Besteak beste, lanbide-gaitasuna egiaztatze prozeduren kudeaketa osoaren gaineko eskumenak transferitu dizkio.</p> <p>Horren aurrean, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Hezkuntza Departamentuak erabaki dute beste era batera banatzea lanbide-gaitasunak egiaztatze prozeduren gaineko eskumenak, eta horren ondorioz goitik behera eraldatu behar da 66/2014 Foru Dekretua, aldatu nahi zena.</p>
----	---	--

7.3. Planetik kanpo onetsitako arauak

Foru Dekretua	37/2020 Foru Dekretua, ekainaren 3koa, Baso Aprobetxamenduetako oinarrizko lanbide tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituena Nafarroako Foru Komunitatean.
Foru Dekretua	38/2020 Foru Dekretua, uztailaren 3koa, Etxebizitzen Mantentze-lanetako oinarrizko lanbide tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituena Nafarroako Foru Komunitatean.
Foru dekretua	39/2020 Foru Dekretua, ekainaren 3koa, Kirol Instalazioen Sarbide eta Kontserbazioko oinarrizko lanbide tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituena Nafarroako Foru Komunitatean.
Foru Dekretua	40/2020 Foru Dekretua, ekainaren 3koa, Nafarroako Foru Komunitatean Kirol Instalazioetako Sarbide eta Mantentze-lanetako laguntzailearen Lanbide Heziketa Bereziaren egitura eta curriculuma ezartzen dituena.
Foru Dekretua	41/2020 Foru Dekretua, ekainaren 3koa, Nafarroako Gobernuarena, Nafarroako Foru Komunitatean Ikus-entzunezkoetarako eta Ikuskizunetarako Soinuko goi mailako teknikari tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituena.
Foru Dekretua	42/2020 Foru Dekretua, ekainaren 3koa, araubide bereziko kirol ikasketen barrenean espeleologiako kirol teknikari tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituena Nafarroako Foru Komunitatean.
Foru Dekretua	43/2020 Foru Dekretua, ekainaren 3koa, Nafarroako Foru Komunitatean Ilustrazioko Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako teknikari tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituena.
Foru Dekretua	44/2020 Foru Dekretua, ekainaren 3koa, Nafarroako Gobernuarena, Produktu Farmazeutikoen, Bioteknologikoen eta Antzekoen Fabrikazioko goi mailako teknikari tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituena Nafarroako Foru Komunitatean.
Foru Dekretua	45/2020 FORU DEKRETUA, ekainaren 3koa, Erradioterapiako eta Dosimetriako goi mailako teknikari tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituena Nafarroako Foru Komunitatean.
Foru Dekretua	91/2020 Foru Dekretua, abenduaren 2koa, araubide bereziko kirol ikasketen barrenean atletismoko kirol teknikari tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituena Nafarroako Foru Komunitatean.

8. ESKUBIDE SOZIALETAKO DEPARTAMENTUA

8.1. Planean aurreikusitakoak:

FL	Pertsona zaharrak etxean hartzeari buruzko abenduaren 10eko 34/2002 Foru Legea aldatzen duena.
FD	Oinarrizko gizarte zerbitzuen oinarrizko programak eta finantzaketa sistema arautzen dituen. ONETSI DA.
FD	Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen sistemaren barruan, egoitza zerbitzuen, eguneko zerbitzuen eta zerbitzu anbulatorioen funtzionamendua arautzen duena adinekoen, desgaitasuna dutenen, eritasun mentala dutenen eta gizarte-inklusioaren arloetan. ONETSI DA.
FD	Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legea garatzen duena.
FD	221/2011 Foru Dekretua (irailaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitateko egoitzetako gizarte zerbitzuen esparruan lotura fisiko eta farmakologikoen erabilera arautzen duena) aldatzen duena.

8.2. Planeko gainerako arauak ez onesteko arrazoiak.

Hona Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazi dituen arrazoiak: dagoeneko Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legea garatzen duen Foru Dekretuaren proiektuaren bi bertsio egin dira eta beste departamentuetara bidali dira, baina ezin burutu izan da izapidetzea, erregulazioa oso konplexua baita, zenbait departamenturi eragiten die eta.

Halaber, 221/2011 Foru Dekretua (irailaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitateko egoitzetako gizarte zerbitzuen esparruan lotura fisiko eta farmakologikoen erabilera arautzen duena) aldatzen duen Foru Dekretuaren proiektua egin da, jendaurrean azaldu da eta aholku-kontseilu sektorialeki aurkeztu zaie, baina onespina atzeratu egin da hasierako aurreikuspenetik, Covid-19ak ekarri duen osasun-larrialdiaren ondorioz ezohiko lan asko egin behar izan baitu PAGNAk.

Azkenik, nahiago izan dugu Parlamentuko taldeei proposatzea 34/2002 Foru Legea (abenduaren 10ekoa, pertsona zaharrak etxean hartzeari buruzkoa) aldatuko

duen foru legearen proposamena egitea, erreforma txikia baita, izapideak azkarrago egin daitezen foru legearen proposamen gisara.

8.3. Planetik kanpo onetsitako arauak

Idazkaritza Tekniko Nagusiaren arabera, Eskubide Sozialetako kontseilariak honako hauek ere onetsi ditu Covid-19arekin lotutako arrazoiengatik:

- 130/2020 Foru Agindua, martxoaren 17koa, neurri prebentiboak eta gomendioak hartzen dituen oinarrizko gizarte zerbitzuetan (OGZ), gizarte zerbitzuen zentroetan (GZZ), gizarteratze eta laneratze taldeetan (GLT), haurrei eta nerabeei laguntzeko taldeetan (HNLTL), genero indarkeriaren biktimei osoko arreta emateko taldeetan (GIBOAT), etxebizitzaren esparruko gizarteratze taldeetan (EGT) eta etxegabeendako harrera zerbitzuetan, koronabirusaren (COVID-19) eboluzio epidemiologikoak eragin duen alarma egoerak dirauen bitartean aplika daitezten.
- 132/2020 Foru Agindua, martxoaren 17koa, prebentzio neurriak eta gomendioak ezartzen dituen adinekoen, desgaitasuna dutenen eta adingabeen esparruan, koronabirusaren (COVID-19) eboluzio epidemiologikoak eragin duen alarma egoerak irauten duen bitartean.
- 141/2020 Foru Agindua, martxoaren 30ekoa, aurreikusten duena neurri batzuk ezartzea COVID-19ak ukitutako zentro sozio-sanitarioetan, martxoaren 23ko SND/275/2020 Agindua aplikatuz, Zangozako eta Miranda Argako zahar-etxeetako antolaketa aldatzen duena eta behin-behineko zentroko zuzendari bat izendatzen duena zahar-etxe horien jarduera asistentziala zuzendu eta koordinatzeko, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren menpe.
- 144/2020 Foru Agindua, martxoaren 31koa, zeinaren bidez zenbait zentro soziosanitario antolatzeko neurriak aldatu eta behin-behineko zentroetako zuzendariak izendatzen baitira, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren menpe, zentro horietako jarduera asistentziala zuzendu eta koordina dezaten.

- 147/2020 Foru Agindua, apirilaren 3koa, alarma egoerak irauten duen bitartean zentro soziosanitarioetan esku hartzeko behar diren neurriak osatzen dituen eta zentro bat identifikatzen duena Eskubide Sozialetako kontseilariaren martxoaren 30eko 141/2020 Foru Aginduan eta foru agindu honetan aurreikusitako neurriak hartze aldera.
- 157/2020 Foru Agindua, maiatzaren 5koa, martxoaren 17ko 130/2020 Foru Agindua aldatzen duena eta, horrekin batera, gizarte zerbitzuetako egoiliarrek edo erabiltzaileak eta, orobat, zerbitzu horiek ematen dituzten langileak babesteko prebentzio neurriak hartzera premiatzen duena. Aipatutako 130/2020 Foru Aginduaren bidez, prebentzio neurriak eta gomendioak hartu ziren oinarrizko gizarte zerbitzuetan (OGZ), gizarte zerbitzuen zentroetan (GZZ), gizarteratze eta laneratze taldeetan (GLT), haurrei eta nerabeei laguntzeko taldeetan (HNLTL), genero indarkeriaren biktimei osoko arreta emateko taldeetan (GIBOAT), etxebizitzaren esparruko gizarteratze taldeetan (EGT) eta etxegabeendako harrera zerbitzuetan, koronabirusaren (COVID-19) eboluzio epidemiologikoak eragin duen alarma egoerak dirauen bitartean aplikatu daitezkeen.
- 158/2020 Foru Agindua, maiatzaren 6koa, 132/2020 Foru Agindua aldatzen duena (martxoaren 17koa, prebentzio neurriak eta gomendioak ezartzen dituen adinekoen, desgaitasuna dutenen eta adingabeen esparruan, koronabirusaren (COVID-19) eboluzio epidemiologikoak eragin duen alarma egoerak irauten duen bitartean).
- 161/2020 Foru Agindua, maiatzaren 25koa, zeinaren bidez baldintzak eta betebeharrak ezartzen baitira bisitak jasotzeko tutoretzapeko etxebizitzetan, desgaitasuna dutenen egoitzetan eta adinekoen egoitzetan, bai eta zentro horietako egoiliarrek paseoak egiteko ere.
- 202/2020 Foru Agindua, ekainaren 15koa, zeinaren bidez malgutze neurriak hartzen baitira gizarte zerbitzuen arloan, hain zuzen ere adinekoei, desgaitasuna dutenei eta adingabeei arreta ematekoetan, COVID-19aren pandemia iragan ondoren.
- 410/2020 Foru Agindua, azaroaren 23koa, zeinaren bidez betekizunak, baldintzak eta gomendioak ezartzen baitira desgaitasuna dutenen

egoitzetako eta adinekoen egoitzetako egoiliarak bisitatzeko eta haien irteeretarako.

- 432/2020 Foru Agindua, abenduaren 16koa, zeinaren bidez betekizunak, baldintzak eta gomendioak ezartzen baitira desgaitasuna dutenen egoitzetako eta adinekoen egoitzetako egoiliarak bisitatzeko eta haien irteeretarako.

9. OSASUN DEPARTAMENTUA

9.1. Planean aurreikusitakoak:

FD	Elikagaien Jardueren Osasun Erregistroa arautzen duena.
FD	Kartzinogenoak erabiltzen dituzten enpresen erregistroa arautzen duena.
FD	Zentro soziosanitarioetako arreta farmazeutikoa arautzen duena.
FD	Osasun garraioari buruzkoa.
FD	Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzea eta lanpostuak hornitzea arautzen duen 347/1993 Foru Dekretua aldatzen duena.
FD	Osasun Departamentuan trebakuntza, ikerketa etaberrikuntza sustatzen dituena.
FA	Prestazio ortoprotesikoa arautzen duena (kanpoko ortoprotesien modalitatea) eta Nafarroako prestazio ortoprotesikoa kudeatzen laguntzen duten establezimenduen erregistroa sortzen duena.

9.2. Planeko gainerako arauak ez onesteko arrazoiak.

Hona Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazi dituen arrazoiak: denok dakigun bezala, 2020. urtean COVID-19aren pandemia hasi zen eta oraindik ez da amaitu. Osasun Departamentuak 2020ko Araugintza Planean ezarritakoa ez betetzeko arrazoia mundu osoan hedatutako pandemia da, jakina. Izan ere, horri aurre egiteko, Departamentuaren lanaren hazkuntza esponentziala baino handiagoa izan

da, eta gainera ohiko egitekoekin jarraitu behar izan du, eta kasu gehienetan langile-baliabide berekin.

Batetik, lehen alarma-egoeran bertan behera gelditu ziren epealdi administratiboak (are arauak onestekoak ere) eta ondorioz prozesu guztiak atzeratu ziren.

Horrez gainera, Osasun Departamentuan, araugintzako proiektuak egiten dituzten unitate organikoak lanez gainezka egon dira, eten gabean egin behar baitiete aurre pandemiaren ondorioz sortzen diren beharrezanezi, eta askotan presaka, gainera. Horregatik guztiagatik, askotan alde batera utzi behar izan dira Departamentuaren ohiko jarduerak, edo atzeratu egin behar izan dira. Atzeratu behar izan diren ohiko egitekoen artean Departamentuaren 2020ko Araugintza Planaren burutzapena dago.

Jarraian Idazkaritza Tekniko Nagusiak Planeko arauak zertan diren azalduko du, banaka:

a) Elikagaien Jardueren Osasun Erregistroa arautzen duen Foru Dekretua.

Foru dekretu hau egiteko prozesua nahiko aurreratuta dago. Jendaurreko informazioa egin da, aurkeztutako ekarpen guztiak balioetsi dira eta horietako batzuk behin betiko testuan sartu dira. Otsailean, proiekturako ekarpenen balioespenari buruzko txostena ezarri da Atarian.

Orobat, espedienteko txostenak egin dira. Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Legegintza eta Koordinazio Zerbitzura bidali behar da, txostena egiteko. Ondoren Nafarroako Kontseilura bidaliko da, txostena egin dezan eta gero Nafarroako Gobernuak onets dezan.

2021eko Araugintza Planean sartu da, 2021. urtean onesteko.

b) Kartzinogenoak erabiltzen dituzten enpresen erregistroa arautzen duen Foru Dekretua.

Foru dekretu hau oso aurreratuta zegoen. Hala ere, 2020an Auzitegi Gorenak eman zuen epai batean, Nafarroako foru dekretuaren gai bera arautzen zuen

Asturiasko Printzerriaren dekretu bat deuseztatu ez ezik, doktrina modura ezarri zuen agente kantzerigeno edo mutagenoekiko esposizioan lan egiten duten langileei horren berri ematea laneko arriskuen prebentzioaren eskumeneko egitekoa dela eta eskumen hori Estatuak baizik ez daukala, lan-arloko legeriaren barrukoa baita. Auzitegi Gorenaren epai hori ikusirik, bertan behera utzi zen foru dekretu hori onesteko asmoa.

c) Zentro soziosanitarioetako arreta farmazeutikoa arautzen duen Foru Dekretua.

Proiektu honen ardura Antolaketa eta Ikuskaritza Farmazeutikoaren Atalak dauka, eta hau ere lanez gainezka dago osasun-krisiaren ondorioz. Hala ere, proiektua amaitzea lortu du eta orain Gobernu Irekiaren Atarian dago; prozesua herritarrek parte hartzeko fasean egonen da 2021eko martxoaren 1era arte.

Proiektu hau 2021eko Araugintza Planean sartu da 2021ean onesteko asmoarekin.

d) Osasun garraioa arautzen duen Foru Dekretua.

Foru dekretu honen proiektua herritarrek parte hartzeko fasean sartu zen 2019. urterako; entitateen eta sektoreen ekarpenak balioestea baizik ez zen falta. Gero pandemiaren osasun-krisia etorri zen eta prozedura eten zen. Oraindik geldituta dago, osasun-krisiaren eraginez beste era batera formulatu behar denez aztertu eta ebatzi behar baita. Beraz, erabaki behar da proiektu berria egiten den, berriz ere aurreko prozesuari ekinen zaion. Halaber, osasun-garraioa arautuko duen enpresa publikoa sortzea bideragarria denez erabaki behar da, horretaz egin den azterlana kontuan hartuta.

2021eko Araugintza Planean sartu da.

e) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzea eta lanpostuak hornitzea arautzen duen 347/1993 Foru Dekretua aldatzen duen Foru Dekretua.

Proiektu honen arduraduna Osasunbidea - Nafarroako Osasun Zerbitzuko Profesionalen Zuzendaritza da. Hau ere gainezka dago, beraren egitekoak baitira osasun-krisiari aurre egiten ari diren osasun-langileen eta arreta-langileen kudeaketa eta behar diren langile berrien kontratazioa. Horregatik, orain arte geldituta egon da.

Gaur egun, zuzendaritza hau eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia ez datoz bat koordinazio-figura bat sartzearen inguruan. Berriz ere Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarekiko harremanei ekin zaie eta luze gabe proiektua Negoziatio Mahai Orokorrera eramanen da, izapideekin jarraitzeko edo aldaketak egiteko.

Nolanahi ere, proiektu hau ez da sartu 2021eko Araugintza Planean, oraindik erabakitzeko baitago osasun-krisiaren ondoren aldatuko den ala ez.

g) Osasun Departamentuan trebakuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatzen dituen Foru Dekretua.

Proiektu hau ez zen abian jarri ere egin 2020an, Osasun Zuzendaritza Nagusiari atxikitako Plangintza Zerbitzuak, izapidetzeko eskumena daukanak, martxoaz geroztik lan nekeza egin behar izan baitu: astero Osasun Ministeriora bidali pandemiari buruz eskatzen duen informazio guztia. Orain, kontuan edukita osasun-krisia ez dela amaitu oraindik, ez dago Osasun Departamentuaren lehentasuneko helburuen artean eta ez da sartu 2021eko Araugintza Planean.

h) Prestazio ortoprotesikoa arautzen duen (kanpoko ortoprotesien modalitatea) eta Nafarroako prestazio ortoprotesikoa kudeatzen laguntzen duten establezimenduen erregistroa sortzen duen Foru Dekretua.

Proiektu hau prestatzeko ardura Prestazio eta Itun Zerbitzuak dauka, eta honetan eragin handia izan du COVID-19aren ondoriozko osasun-krisiak, lan-karga asko handitu da eta. 2020. urtean behin betiko proiektua amaitzea lortu da. Orain zain gaude testua euskarara noiz itzuliko, jendaurrean agertu eta nornahik ekarpenak egin ditzan.

Oso garrantzitsua denez, 2021eko Araugintza Planean sartu da, 2021. urtean onesteko.

9.3. Planetik kanpo onetsitako arauak

Adierazitakoaren arabera:

A) Osasun Departamentuaren berezko gaiei buruzko arautegia.

324E/2020 FORU AGINDUA, azaroaren 4koa, Osasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez profesionalak gaitzeko prozedura ezartzen baita, aho-hortzak zaintzeko zerbitzuak eman ditzaten Haurren Aho-hortzetako Osasun Laguntzaren Programaren esparruan (PADI), Nafarroan.

B) COVID-19 arauak.

Jarraian Osasun kontseilariak eman dituen edo beraren proposamenez onetsi diren xedapen nagusiak azalduko dira. Xedapen hauek onesteko erabili den prozedura ez da izan arau-xedapenak egiteko erabili ohi dena, baizik eta osasunaren arloko arau hauetan ezartzen dena: 33/2011 Lege Orokorra, urriaren 4koa, osasun publikoari buruzkoa; 3/1986 Lege Organikoa, apirilaren 14koa, osasun publikoaren arloko neurri bereziena; Osasunaren Lege Orokorra. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren ustez xedapen orokorrak dira.

Prestakuntza honako hauek aritu dira: Osasun Departamentuko unitateak, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua eta Idazkaritza Tekniko Nagusia. Gainera, onetsi aurretik eraginpeko sektore nagusiei jakinarazi zaizkie eta parte hartzeko aukera eman zaie, bai eta haien eraginpeko departamentu guztiei ere. 2020ko ekainetik, gehienak onetsi aurretik baimendu dira edo, bestela, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak berretsi ditu, zuzenean edo zeharka pertsonen oinarritzko eskubideak ukitzen baitituzte.

1. 2/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 11koa, koronabirusak (COVID19) eragindako egoeraren eta bilakaeraren ondorioz zenbait irizpide eta jarraibide ezartzen dituena, Nafarroako Foru Komunitatean egitekoak diren kirol, gizarte, kultura, aisialdi ekitaldietarako eta zezen-ikuskizunetarako.

Jarraibideak ematen ditu honako hauetarako:

- a) Estatuko eta nazioarteko ekitaldiak; Osasun Ministerioaren gomendioak beteko dira.
- b) Ekitaldiak eremu irekietan: 1.500 pertsona gehienez.
- c) Ekitaldiak eremu itxietan (karpak barne), baldin eta uste bada ez dela inor joanen euspen gogortuko zonetatik: edukieraren 2/3, 1.500 pertsona gehienez.
- d) Ekitaldiak eremu itxietan, baldin eta uste bada euspen gogortuko pertsonak joan daitezkeela: atzeratu egin dira.

2. 3/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 13koa, osasun publikoko jarraibide eta prebentzio neurriak hartzen dituena koronabirusaren (COVID19) egoeraren eta bilakaeraren ondorioz:

- a) Hezkuntza-jarduera presentzial guztiak bertan behera uztea ikastetxe eta maila guztietan, eskola-orduetakoak zein eskolaz kanpokoak, publikoetan zein pribatuetan, 0 urtetik unibertsitatera arte.
- b) Bertan behera uztea prestakuntza jarduera presentzial guztiak honako modalitate hauetan: enplegurako lanbide prestakuntza eta autonomoentzako, pertsona ekintzaileentzako eta ekonomia sozialeko entitateentzako lanbide prestakuntza.
- c) Kirol ekitaldiak, kultur ekitaldiak, ekitaldi sozialak, erlijiosoak, aisialdikoak eta zezenketa-ekitaldiak:
 - a. 1.000 pertsonatik gorako edukiera dagoen tokikoak bertan behera. Edukiera hortik beherakoa izanez gero: heren bat baino ez.
 - d) Nazioko edo nazioarteko lehiaketetako kirol ekitaldiak, profesionalak izan edo ez, non zale asko biltzen baitira, ateak itxita eginen dira.

3. 4/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 14koa, zeinaren bidez hartu diren publikoko prebentzio-neurriak eta jarraibideak koronabirusaren (COVID19) egoera eta bilakaeraren ondorioz.

- a) Neurri prebentiboak ezarri dira
- a) Honako hauek itxita egonen dira: Justizia Jauregia eta bake epaitegiak (hala ere, oinarrizko zerbitzuak mantentzen ahal dira, Ministerioarekin koordinatuta); haurrentzako aisialdiko lokalak eta ludotekak, haurrentzako parkeak, Nafarroako liburutegi publikoak eta titulartasun edo kudeaketa publikoko museoak, ikasleen egoitzak eta gazteentzako aterpetxe publikoak.
- b) Jarraibideak eman dira ostalaritzako ekitaldiez, aisialdiko ekitaldiez, kirol ekitaldiez, kultura-ekitaldiez, ekitaldi sozialez, ekitaldi erlijiosoez eta zezenketa-ekitaldiez.
- c) Jarraibideak eman dira pertsona jakin batzuek: adinekoen eguneko zentroetan egoten direnak, adinekoen egoitza zentroetan egunez egoten direnak. Egoitza zentroetara egiten ahal diren bisitak mugatu dira.

4. 6/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 21ekoa, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko zenbait enpresari obligazioak ezartzen baitzaizkie, osasun- eta laguntza-sistemaren beharrekin zerikusia dutenak.

Nafarroako Foru Komunitatean kokatutako pertsona juridikoen betebeharra da, nazionalak zein atzerritarrak izan, baldin eta egiten duten jarduera II edo IIR motetako maskara kirurgikoak, FFP2 motako babes-maskarak eta FFP3 motako babes-maskarak fabrikatzea edota inportatzea edota merkaturatzea bada edo produktu horietako bat garatzeko gaitasuna badute, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari adieraztea, ahalik eta azkarren, stockean produktu horietako zenbat dituzten, zein motatakoak diren, horiek erosi edo/eta produzitzeko kostua eta, orobat, haiek merkaturatzean zer industria-mozkin aurreikusi duten.

5. 7/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 6koa, zeinaren bidez zehazten baita Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuaren esku jartzea COVID-19ak eragindako osasun-krisiak irauten duen bitartean lan-istripuen mutualitateetako langileak.

6. 9/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 27koa, Koronabirusaren (COVID19) pazientearen zainketan hartu beharreko erabaki etikoen gaineko aholku batzordea sortzen duena.

Batzordeko kideak nortzuk izanen diren ezartzen da eta horren egitekoak arautzen dira. Egitekoak honako hauek izanen dira: Covid-19aren ondoriozko osasun-krisian pazienteekin aritzeko gomendioak aplikatzeko erabaki zailak hartu behar dituzten profesionalen laguntzea; Covid-19arekin kutsatutako pazienteekin eta haien ahaideekin hitz egiten laguntzea; profesionalen eta herritarrei ezohiko osasun-larrialdi honetan aparteko neurriak aplikatu behar direla azaltzen laguntzea.

7. 14/2020 FORU AGINDUA, apirilaren 3koa, 9/2020 Foru Agindua (martxoaren 27koa, koronabirusaren (COVID 19) pazientearen zainketan hartu beharreko erabaki etikoen gaineko aholku batzordea sortzen duena) aldatzen duena.

Batzordeko kideak aldatu dira, gaiaren arabera adituak aritzeko aukera gehitu da eta batzordearen indarraldia aldatu da (Nafarroako Foru Komunitatean epidemiaren uhina baretzen denean amaituko da).

8. 17/2020 FORU AGINDUA, apirilaren 24koa, jarraibideak eta neurriak ematen dituen apirilaren 13ko SND/344/2020 Agindua garatzeko, zeinaren bidez salbuespeneko neurriak ezartzen baitira Osasun Sistema Nazionala indartzeko eta COVID-19ak eragindako osasun krisiari eusteko, eta arduraduna izendatzen duena COVID-19a detektatzeko PCR proba diagnostikoak egiteko zentro baimenduen sarearen koordinazio exekutiborako.

Nafarroako osasunaren arloko agintaritzen esku jartzen dira osasunerako zerbitzuak, zentroak eta establezimenduak, osasun-sistema publikoko zentroak osatzeko behar balira ere. Horrez gainera, Carlos III osasun-institutuak baimendutako ikerketa-zentroetako eta unibertsitateetako baliabideak ere erabiltzen ahalko dira osasun-sistemari proba diagnostikoak egiten laguntzeko. Beste alde batetik, proba diagnostikoak Nafarroako osasun-sistema publikotik kanpo egiteko baldintzak arautzen dira. Azkenik, Covid-19aren kasu berretsiak jakinarazteko

prozedura eta proba diagnostikoak erosteko prozedura arautzen dira eta Covid-19aren kutsadura detektatzeko PCR proba diagnostikoak egiteko baimena duten zentroen sarearen koordinazio exekutiboaren arduraduna izendatzen da.

9. 18/2020 FORU AGINDUA, maiatzaren 7koa, Nafarroako Trantsiziorako Batzordea (COVID19) sortzen duena.

Batzordearen osaera arautzen da, bai eta edukiko dituen egitekoak ere: aholkuak ematea pandemiaren inguruko gaiez, gomendioak ematea fase-aldaketaz, faseetan ezarriko diren neurriei buruzko proposamen teknikoak aztertzea eta beharrezkoak diren gainerako ekarpen guztiak egitea.

10. 21/2020 FORU AGINDUA, maiatzaren 15ekoa, Nafarroako Foru Komunitatean kokatutako "aisialdiko etxabe", "pipero" edo "elkarte gastronomiko" deiturikoei edo antzekoei buruzko jarraibideak ematen dituena, eta urruntze fisikoko, babeseko eta prebentzioko neurri jakin batzuk gogorarazten dituena, trantsizio prozesuaren egungo fasean sartzen diren jardueri dagokienez.

I. fasean aisialdiko lokal horietako jarduera eten da; etenaldi horretatik salbuetsita daude kafetegi, jatetxe edo tabernarik ez dagoen bostehun biztanle baino gutxiagoko udalerrri txikietan daudenak, herri guztia elkartzeko lokal bakarrak badira. Horrez gainera, Osasun Publikoaren jarraibideak aintzat hartzea erabaki da, batez ere bi metroko distantzia mantendu beharra. Azkenik, gogorarazten da udalek udal hilerriak irekitzeko eskumena dutela.

11. 24/2020 FORU AGINDUA, maiatzaren 24koa, 21/2020 Foru Agindua (maiatzaren 15ekoa, Nafarroako Foru Komunitatean kokatutako "aisialdiko etxabe", "pipero" edo "elkarte gastronomiko" deiturikoei edo antzekoei buruzko jarraibideak ematen dituena, eta urruntze fisikoko, babeseko eta prebentzioko neurri jakin batzuk gogorarazten dituena, trantsizio prozesuaren egungo fasean sartzen diren jardueri dagokienez) aldatzen duena.

II. fasean aisialdiko lokal horietako jarduera eten da; etenaldi horretatik salbuetsita daude bostehun biztanle baino gutxiagoko udalerrri txikietan daudenak, bai eta bostehun biztanletik beherako kontzejuak ere

12. 25/2020 FORU AGINDUA, maiatzaren 24koa, Osasuneko kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean II. fasean baimentzen diren zenbait jarduera arautzen dituena.

Aire zabaleko kulturaren arloko jardueretan gehienez 200 pertsona biltzen ahal dira; Nafarroako Foru Komunitatearen barruan zilegi dira honako hauek: osasuna zaintzeko paseoak egitea, naturako jarduerak eta aire zabaleko kirol jarduerak (mendi-ibiliak, mendizaletasuna, eskalada, piraguismoa, ziklismoa eta antzekoak), bai federatuek, bai federatu gabeek; osasun publikoko jarraibidea batzuk ezartzen dira Nafarroako bainatzeko eremuetarako (urtegiak, ibaiak, iturburuak, ibaietako igerilekuak eta antzekoak).

13. 26/2020 FORU AGINDUA, maiatzaren 30ekoa, zeinaren bidez neurriak ezartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean berriro irekitzeko ostatuen eta jatetxeen lokalak, Normaltasun Berrirako Trantsizioko II. fasean baimendutakoak.

14. 27/2020 FORU AGINDUA, ekainaren 7koa, normaltasun berrirako trantsizioaren barruan, III. faserako neurriak ematen dituena Nafarroako Foru Komunitatean kokatutako "aisialdiko etxabe", "pipero", "peña" edo "elkarte gastronomiko" deiturikoei eta antzekoei dagokienez.

Bertan behera uzten da pipero, aisialdiko etxabe eta antzekoen irekiera eta sozietate gastronomikoetan bete beharreko neurriak arautzen dira (neurriez eman beharreko informazioa, segurtasuneko distantzia eta desinfekzioa).

15. 28/2020 FORU AGINDUA, ekainaren 7koa, Nafarroako Foru Komunitatean Normaltasun Berrirako Trantsizioko III. fasean baimentzen diren zenbait jarduera arautzen dituena.

Zenbait neurri ezartzen dira kulturaren arloko eta aisialdiko jardueri buruz, diskoteka-lokalei buruz eta gaueko aisialdiko tabernei buruz, zezenketako plaza, barrunbe eta instalazioetako jardueraz, osasuna zaintzeko paseoez, naturako jardueraz, aire zabaleko kirol jardueraz eta Nafarroako bainatzeko eremuez.

16. 30/2020 FORU AGINDUA, ekainaren 14koa, zeinaren bidez aldatzen baitira foru agindu batzuk, Nafarroako Foru Komunitatean Normaltasun Berrirako Trantsizioko III. fasean baimendutako jarduerak arautzen dituztenak. Ostalaritzaren eta jatetxeen jarduerarekin lotutako aldaketak dira.

17. 34/2020 FORU AGINDUA, uztailaren 15ekoa, zeinaren bidez maskararen erabilerarekin lotutako prebentzio neurriak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean, COVID-19ak eragindako osasun krisialdian.

Foru agindu honek maskara nahitaez erabili behar den kasu orokorrak eta horren salbuespenak arautzen ditu.

18. 35/2020 FORU AGINDUA, uztailaren 17koa, neurriak ezartzen dituena Nafarroako Foru Komunitatean kokaturiko "aisialdiko etxabe" edo "pipero" deiturikoei edo antzekoei buruz, eta aldatzen duena uztailaren 15eko 34/2020 Foru Agindua, zeinaren bidez maskararen erabilerarekin lotutako prebentzio neurriak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean, COVID-19ak eragindako osasun krisialdian.

Bertan behera uzten da aisialdiko etxabeetako jarduera (salbuespena: 500 biztanletik beherako udalerrriak eta kontzejuak) eta aldaketa puntuala egiten zaio maskaren erabilera arautzen duen foru aginduari, 6 - 12 urte bitartekoen erabilerari dagokionez.

19. 36/2020 FORU AGINDUA, uztailaren 22koa, zeinaren bidez Mendillorri auzoan (Iruña) prebentzio neurriak hartzen baitira COVID-19aren egoera epidemiologikoak izandako bilakaeraren ondorioz (ondoriorik gabe utzi zuen Osasuneko kontseilariaren uztailaren 22ko 38/2020 Foru Aginduak).

Prebentzio-neurriak ezartzen dira Mendillorri auzorako (Iruña) kulturaren arloko jardueretako pertsona kopuruei buruz, eraikin publikoei buruz, ostalaritzako eta jatetxeetako jardueri buruz etab.

20. 39/2020 FORU AGINDUA, abuztuaren 13koa, zeinaren bidez prebentzio neurriak hartzen baitira Tuterako udalerrian (Nafarroa) COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izan duen bilakaeraren ondorioz.

Prebentzio-neurriak ezartzen dira Tuterarako kulturaren arloko jardueretako pertsona kopuruei buruz, eraikin publikoei buruz, ostalaritzako eta jatetxeetako jardueri buruz etab.

21. 40/2020 FORU AGINDUA, abuztuaren 28koa, zeinaren bidez COVID-19ak eragindako osasun krisialdian maskararen erabilerarekin lotutako hainbat prebentzio neurri ezarri baitziren Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe eta unibertsitateetan.

Arautzen da nola erabili behar den maskara Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan eta unibertsitateetan: Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek, unibertsitateetako ikasleek eta ikastetxeetako eta unibertsitateetako irakasleek.

22. 41/2020 FORU AGINDUA, irailaren 2koa, zeinaren bidez prebentzio neurriak hartzen baitira Leitzako udalerrian (Nafarroa) COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izan duen bilakaeraren ondorioz.

Zenbait neurri ezartzen dira ostalaritzari eta jatetxeei buruz, sozietate gastronomikoei eta peñei buruz, haurrentzako parkeez eta erabilera publikoko eremuez eta eremu pribatuko bilera sozialei buruz eta osasun-neurrien gaineko gomendio orokorrak ematen dira.

23. 42/2020 FORU AGINDUA, irailaren 11koa, zeinaren bidez prebentzio neurriak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izan duen bilakaeraren ondorioz.

Nafarroako Foru Komunitate osorako neurri batzuk ezartzen dira honako gai hauei buruz: ostalaritza eta jatetxeak; herriko kaleetako azokak; akademiak, autoeskolak eta arautu gabeko irakaskuntzako zentro pribatuak; kulturaren arloko ekitaldiak; igerilekuak; joko-aretoak eta apustu-aretoak; sozietate gastronomikoak eta peñak; erabilera publikoko eremuak; eremu pribatuko bilerak.

24. 43/2020 FORU AGINDUA, irailaren 22koa, zeinaren bidez berariazko prebentzio neurri apartekoak hartzen baitira Azkoiengo udalerrian (Nafarroa), COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izan duen bilakaeraren ondorioz (Osasun kontseilariaren urriaren 7ko 49/2020 Foru Aginduaren bidez luzatu da).

Udalerraren itxitura perimetrala ezartzen da (salbuespenak arautzen dira) eta prebentzio-neurriak ezartzen dira ostalaritza eta jatetxeei buruz, hileta eta beilei buruz, txikizkako merkataritzari buruz, herriko kaleetako azokei buruz eta akademiez, autoeskolez eta arautu gabeko irakaskuntzako zentro pribatuez eta bertan behera uzten da honako leku hauetako jarduera: udalen liburutegiak, kultur ekipamenduak eta kirol instalazioak, haurrentzako parkeak eta aire zabaleko kirol eremuak. Neurri horiek Osasuneko kontseilariaren honako foru agindu hauen bidez luzatu dira: 22/2020 Foru Agindua, irailaren 24koa; 47/2020 Foru Agindua, urriaren 1ekoa; 51/2020 Foru Agindua, urriaren 8koa.

25. 48/2020 FORU AGINDUA, urriaren 2koa, zeinaren bidez berariazko prebentzio neurri apartekoak hartzen baitira San Adriango udalerrian (Nafarroa), COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izan duen bilakaeraren ondorioz.

Osasunaren arloko prebentzio-neurriak ezartzen dira San Adriango udalerrirako: udalerraren itxitura perimetrala (salbuespenak arautzen dira); prebentzio-neurriak ostalaritza eta jatetxeei buruz, merkataritzari buruz, aire zabaleko azokei buruz eta akademiez, autoeskolez eta arautu gabeko irakaskuntzako zentroez; bertan behera uzten da honako leku hauetako jarduera: udalaren liburutegiak, kultur ekipamenduak eta kirol instalazioak, haurrentzako parkeak eta aire zabaleko kirol eremuak.

26. 52/2020 FORU AGINDUA, urriaren 9koa, zeinaren bidez berariazko prebentzio neurri apartekoak hartzen baitira Alesbesko, Cadreitako, Castejongo, Cintruenigoko, Fustiñanako, Valtierrako eta Zarrakazteluko udalerrietarako, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izan duen bilakaeraren ondorioz.

Zenbait neurri ezartzen dira honako gai hauei buruz: ostalaritza eta jatetxeetako jarduera; ezteiak, lehen jaun-hartzeak eta beste ospakizun sozial, erlijioso eta zibil batzuk; txikizkako merkataritzako eta jarduera eta zerbitzuetako establezimenduak eta lokalak; herriko kaleetako azokak; jarduera batzuk bertan behera uztea; haurrentzako parkeak; bilerak eremu pribatuan eta publikoan.

27. 54/2020 FORU AGINDUA, urriaren 11koa, zeinaren bidez berariazko prebentzio neurri apartekoak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitaterako, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izan duen bilakaeraren ondorioz.

Nafarroako Foru Komunitate osorako neurri batzuk ezartzen dira honako gai hauei buruz: ostalaritza eta jatetxeak; hiletak eta beilak; herriko kaleetako azokak; ezteiak, lehen jaun-hartzeak, bataioak eta abar; erlijio-ekitaldiak; txikizkako eta handizkako merkataritza; haurrentzako parkeak eta aire zabaleko kirol eremuak; bilerak eremu pribatuan eta publikoan; igerilekuak; jarduera fisikoa eta kirola eremu itxietan; akademiak, autoeskolak eta arautu gabeko irakaskuntzako zentroak; liburutegiak; kirol jarduerak eta kirol instalazioak; monumentuak; erakusketa-aretoak eta museoak; kulturaren arloko ekitaldiak; turismo-gidariak; biltzarrak, topaketak eta negozio-bilerak; joko-aretoak eta apustu-aretoak; ekitaldietarako erabilera anitzeko espazioak; alkoholaren salmenta; desgaitasuna duten pertsonen egoitza-zentroetako eta adinekoen egoitza-zentroetako bisitak eta irteerak.

28. 55/2020 FORU AGINDUA, urriaren 15koa, zeinaren bidez berariazko prebentzio neurri apartekoak hartzen baitira Cadreitako eta Zarrakazteluko udalerrietan, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izan duen bilakaeraren ondorioz.

Bi udalerrietako itxitura perimetrala ezartzen da eta horren salbuespenak arautzen dira.

29. 57/2020 FORU AGINDUA, urriaren 21koa, zeinaren bidez berariazko prebentzio neurri apartekoak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitaterako, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izan duen bilakaeraren ondorioz.

Itxitura perimetrala ezartzen da Nafarroako Foru Komunitate osorako (salbuespenak arautzen dira) eta prebentzio-neurri orokorrak ezartzen dira honako gai hauei buruz: ostalaritza eta jatetxeak; hiletak eta beilak; herriko kaleetako azokak; ezteiak, lehen jaun-hartzeak, bataioak; erlijio-ekitaldiak; txikizkako eta handizkako merkataritza; haurrentzako parkeak eta aire zabaleko kirol eremuak; bilerak eremu pribatuan eta publikoan; igerilekuak; jarduera fisikoa eta kirola eremu itxietan; akademiak, autoeskolak eta arautu gabeko irakaskuntzako zentroak; liburutegiak; kirol jarduerak eta kirol instalazioak; monumentuak; erakusketa-aretoak eta museoak; kulturaren arloko ekitaldiak; turismo-gidariak; biltzarrak, topaketak eta negozio-bilerak; joko-aretoak eta apustu-aretoak; ekitaldietarako erabilera anitzeko espazioak; alkoholaren salmenta; desgaitasuna duten pertsonen egoitza-zentroetako eta adinekoen egoitza-zentroetako bisitak eta irteerak. Neurri horiek Osasuneko kontseilariaren honako foru agindu hauen bidez luzatu dira: 58/2020 Foru Agindua, azaroaren 4koa; 59/2020 Foru Agindua, azaroaren 16koa; 62/2020 Foru Agindua, azaroaren 27koa.

30. 53/2020 FORU AGINDUA, abenduaren 14koa, zeinaren bidez berariazko prebentzio neurri apartekoak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitaterako, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izan duen bilakaeraren ondorioz.

Nafarroako Foru Komunitate osorako neurri batzuk ezartzen dira honako gai hauei buruz: ostalaritza eta jatetxeak; hiletak eta beilak; herriko kaleetako azokak; ezteiak, lehen jaun-hartzeak, bataioak; erlijio-ekitaldiak; txikizkako eta handizkako merkataritza; haurrentzako parkeak eta aire zabaleko kirol eremuak; bilerak eremu pribatuan eta publikoan; igerilekuak; jarduera fisikoa eta kirola eremu itxietan; akademiak, autoeskolak eta arautu gabeko irakaskuntzako zentroak; liburutegiak; kirol jarduerak eta kirol instalazioak; monumentuak; erakusketa-aretoak eta museoak; kulturaren arloko ekitaldiak; turismo-gidariak; biltzarrak, topaketak eta negozio-bilerak;

joko-aretoak eta apustu-aretoak; ekitaldietarako erabilera anitzeko espazioak; alkoholaren salmenta; desgaitasuna duten pertsonen egoitza-zentroetako eta adinekoen egoitza-zentroetako bisitak eta irteerak. Neurri horiek Osasuneko kontseilariaren abenduaren 28ko 64/2020 Foru Aginduaren bidez luzatu dira.

□ **Osasun Departamentuak proposatuta**

1. 7/2020 FORU LEGE-DEKRETUA, uztailaren 22koa, zeinaren bidez ohiz kanpoko prebentzio neurri batzuk hartzen baitira koronarabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren.

2. 8/2020 FORU LEGE-DEKRETUA, abuztuaren 17koa, zeinaren bidez ohiz kanpoko neurriak onesten baitira Nafarroako Foru Komunitatean COVID-19aren kasu positiboan igoerak eragiten duen arrisku bereziko egoerari erantzuteko.

3. 9/2020 FORU LEGE-DEKRETUA, irailaren 16koa, zeinaren bidez ezartzen baita, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko osasun arloko prebentzio eta euste neurriak ez betetzeagatik aplikatu beharreko zehapen araubidea.

10. HERRITARREKIKO HARREMANETAKO DEPARTAMENTUA

10.1. Planean aurreikusitakoak:

FD	Euskararen ezagutza egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak ezartzen dituen eta ezagutza hori titulu eta ziurtagiri bidez egiaztatu beharrik ez dagoen kasuak arautzen dituen.
FD	Langileek euskara ikastaroak egiteko konpentsazioak (orduak eta dirua), ekainaren 21eko 195/1993 Foru Dekretuan arautzen direnak, eguneratzen dituen.
FD	Helduen euskararen irakaskuntza sustatzen duten entitate pribatuentzako laguntzak arautzen dituen (maiatzaren 19ko 161/1988 Foru Dekretua aldatzen du).

10.2. Planeko gainerako arauak ez onesteko arrazoiak.

Departamentuari atxikitako Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak jakinarazitakoak:

- Euskararen ezagutza egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak ezartzen dituen eta ezagutza hori titulu eta ziurtagiri bidez egiaztatu beharrik ez dagoen kasuak arautzen dituen Foru Dekretuari dagokionez, horren bidez ezarri nahi da Nafarroan eskuratzen diren tituluak eta ziurtagiriak eta Euskal Autonomia Erkidegoan lortzen direnak baliokideak izatea eta batzuek zein besteek aukera ematea bi administrazioetako funtzio publikoan sartzeko. Eusko Jaurlaritza gai honen gaineko arautegia eguneratzen ari da eta beharrezkotzat jo da harekin koordinatzea bi arauetan titulu eta ziurtagiri guztiak arautzeko.
- Langileek euskara ikastaroak egiteko konpentsazioak (orduak eta dirua), ekainaren 21eko 195/1993 Foru Dekretuan arautzen direnak, eguneratzen dituen Foru Dekretua dela eta, dekretu hori eguneratzeko ezinbestekoa da Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarekin lan egitea eta pandemiaren ondoriozko egoerak proiektua lantzea eragotzi du.
- Helduen euskararen irakaskuntza sustatzen duten entitate pribatuentzako laguntzak arautzen dituen Foru Dekretua (maiatzaren 19ko 161/1988 Foru Dekretua aldatzen du) dela eta, proiektuari ekin diogunean ohartu gara arautu nahi diren gai batzuk (moduluen aplikazioa eta laguntzen ordainketa) Hezkuntza Departamentuak itunpeko irakaskuntzarako aplikatzen dituenen antzekoak direla, baina hori ez da egingarria Dirulaguntzen Foru Legearen esparruan. Beraz, lege-esparru egokia ez dagoen artean ez dago modurik foru dekretu hau izapidetzeko.

10.3. Planetik kanpo onetsitako arauak.

Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazten du ez dagoela bat ere.

11. UNIBERTSITATEKO, BERRIKUNTZAKO ETA ERALDAKETA DIGITALEKO DEPARTAMENTUA

11.1. Planean aurreikusitakoak:

FD	Nafarroako Lurraldeari buruzko Informazio Sistema-SITNAren 2020-2023rako Plan Estrategikoa onesten duena.
FA	Nafarroako I+G+b Sistemaren integratutako exekuzioko eragileak egiaztatze prozedura eta aipatu eragileak erregistro publikoan inskribatzea arautzen duena. ONETSI DA.

11.2. Planeko gainerako arauak ez onesteko arrazoiak.

Hona Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazi dituen arrazoiak:

Nafarroako Lurraldeari buruzko Informazio Sistema-SITNAren 2020-2023rako Plan Estrategikoa onesten duen Foru Dekretua izapidetzen ari da. Prozedura 2019ko azaroaren 6an abiatu zen, SITNA 2020-2023 Plan Estrategikoaren proposamena egin zenean. 2019-11-19An herritarrek Nafarroako Lurraldeari buruzko Informazio Sistema-SITNAren 2020-2023rako Plan Estrategikoaren proiektuan parte hartzeko prozesuaren deialdia egin zen.

Lurraldeari buruzko informazio sistemaren plan estrategikoa ez onesteko arrazoiak da izapidetzen ari dela 255/2015 Foru Dekretuaren eraberritzea (azaroaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren informazio geografikoaren tratamendua arautzen duena) eta eraberritze horrek plan estrategikoa onesteko eskumena ukitzen duela. Beraz, eraberritze hori onetsi arte ezin izanen da onetsi hizpide dugun plan estrategikoa. Laster onetsiko dela uste dugu.

11.3. Planetik kanpo onetsitako arauak.

Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazten du ez dagoela bat ere.

12. LANDA GARAPENeko ETA INGURUMENeko DEPARTAMENTUA

12.1. Planean aurreikusitakoak:

FL	Trantsizio energetikoari eta klima aldaketari buruzkoa.
FL	Nekazaritzako azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea aldatzen duena. ONETSI DA.
FD	Nafarroako Salmonidoen Uretako Arrantza Antolatzeko Plan Zuzentzailea onesten duena.
FD	Nafarroako Ziprinidoen Uretako Arrantza Antolatzeko Plan Zuzentzailea onesten duena.
FD	Osasun-hondakinei buruzkoa.
FD	Nafarroako ibaietako karramarro autoktonoa suspertzeko eta karramarro exotikoak kudeatzeko II. plana onesten duena.
FD	Nafarroako Hondakinen Funtza arautzen duena. ONETSI DA.
FD	Ekitaldi publiko jasagarriari buruzkoa.
FD	Espezie Exotiko Inbaditzaileen Katalogoa onesten duena.
FD	Nafarroan Natura 2000 Sarearen barruan dauden kontserbazio bereziko eremuen kudeaketa planen indarraldia luzatzen duena. ONETSI DA.
FD	Nafarroako Basogintzako Kontseilua sortzen duena.
FD	Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen Foru Legearen Erregelamendua onesten duena.
FD	Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean nekazaritzako elikagai ekologikoen ekoizpena, prestakuntza eta merkaturatzea arautzen dituen.
FD	19/2019 Foru Legea (apirilaren 4koa, lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzkoa) garatzen duena.

FD	48/2007 Foru Dekretua (ekainaren 11koa, zeinaren bidez, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea garatu eta betearazteko Erregelamendua onetsi zen) aldatzen duena.
FD	31/2019 Foru Dekretua (martxoaren 20koa, Nafarroako Foru Komunitateko abeltzaintzako ustiategiek eta beren instalazioek bete beharreko higie eta osasun baldintzak eta animalien ongizatearen eta antolamendu zooteknikoaren baldintzak ezartzen dituen) aldatzen duena. Eranskinean zehazten diren ustiategien arteko distantzia batzuk aldatzen dira.

12.2. Planeko gainerako arauak ez onesteko arrazoiak.

Departamentuko zuzendaritza nagusiekin hitz egin ondoren eta izapidetutako espedienteak egiaztatu ondoren, honako hauek dira Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazi dituen arrazoiak:

I. Planean ezarrita egon arren onetsi ez diren arauak, izapideak hasita dituztenak:

1. Trantsizio energetikoari eta klima aldaketari buruzko Foru Legearen proiektua.
 2. Nafarroako Salmonidoen Uretako Arrantza Antolatzeko Plan Zuzentzailea onesten duen Foru Dekretua.
 3. Nafarroako Ziprinidoen Uretako Arrantza Antolatzeko Plan Zuzentzailea onesten duen Foru Dekretua.
- (2. eta 3. arauak foru dekretu bakar baten proiektuan bateratu dira; dekretu horren bidez Nafarroako arrantza urak antolatzeko plan zuzentzaileak onetsiko dira).*
4. Osasun-hondakinei buruzko Foru Dekretua.
 5. Nafarroako ibaietako karramarro autoktonoa suspertzeko eta karramarro exotikoak kudeatzeko II. plana onesten duen Foru Dekretua.
 6. Ekitaldi publiko jasangarriari buruzko Foru Dekretua.
 7. Nafarroako Basogintzako Kontseilua sortzen duen Foru Dekretua.
 8. Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean nekazaritzako elikagai ekologikoen ekoizpena, prestakuntza eta merkaturatzea arautzen dituen Foru Dekretua.
 9. 19/2019 Foru Legea (apirilaren 4koa, lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzkoa) garatzen duen Foru Dekretua.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren jardunaren plangintzan eragin handia izan du SARSCoV-2 birusaren pandemiak: taldeak berrantolatu behar izan dira eta lehentasuna eman behar izan zaie espedienteen kudeaketari eta ekintzei.

Lehen sektorea funtsezkoa da elikagaien hornidura bermatzeko osasun-larrialdietan. Hori berariaz ezartzen zen 463/2020 Errege Dekretuaren 15. artikuluan (martxoaren 14koa, COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratu zuena). Egoera honetan lehentasuna eman zaie larri dauden lan-arloei, esate baterako animalien eta landareen osasunaren kontrolari, ingurumenaren zaintzari eta berariazko laguntzak antolatzeari, koronabirusaren pandemiak eragindako enpresentzako estatu-laguntzen denbora-esparru nazionalaren barruan (esparru hori Europako Batzordeak onetsi du). Lehentasun horien ondorioz ezin bete izan da departamentu honetarako 2020ko ekitaldirako onetsitako araugintza planean ezarritako guztia.

II. Ez onetsi ez izapideak hasi ez diren arauak.

1. 48/2007 Foru Dekretua (ekainaren 11koa, zeinaren bidez, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea garatu eta betearazteko Erregelamendua onetsi zen) aldatzen duen Foru Dekretua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan prozedura bat abiatu da Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko 17/2005 Foru Legea aldatzeko. Horren ondorioz hura garatzen duen erregelamenduaren aldaketa atzeratu behar izan da.

2. Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen Foru Legearen Erregelamendua onesten duen Foru Dekretua. Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legearen Parlamentuko izapideak atzeratu egin ziren hasierako planean ezarritakotik. Horrez gainera, aurkeztutako zuzenketen analisi zehatza egin behar izan da eta horren ondorioz ezin onetsi izan da erregelamendua aurreikusita zegoen bezala.

3. Espezie Exotiko Inbaditzaileen Katalogoa onesten duen Foru Dekretua. Duela gutxi Nafarroako animalia eta landare espezie basatien katalogo berriak onetsi dira. Onespen horrek betebeharrak zorrotzak ekarri ditu espezie asko suspertzeko planak prestatzeko eta onesteko. Lehentasuna eman zaio betebeharrak horiek betetzeari eta ondorioz ezin heldu izan zaio espezie exotiko inbaditzaileei buruzko aruari.

4. 31/2019 Foru Dekretua (martxoaren 2koa, Nafarroako Foru Komunitateko abeltzaintzako ustiatzeko eta beren instalazioek bete beharreko higie eta osasun baldintzak eta animalien ongizatearen eta antolamendu zooteknikoaren baldintzak ezartzen dituen) aldatzen duen Foru Dekretua. Eranskinean zehazten diren ustiatzeko arteko distantzia batzuk aldatzen dira. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan abian paratu da 11/2000 Foru Legea (azaroaren 16koa, Nafarroako animalien osasunari buruzkoa) aldatzeko prozedura; beraz, ez dago zertan izapidetu Foru Dekretuaren aldaketa.

12.3. Planetik kanpo onetsitako arauak.

Ez da onetsi Planean ezarri gabeko foru dekreturik, ez eta Planean ezarri gabeko foru lege-proiekturik izapidetu ere. Hala ere, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak honako foru agindu hauek onetsi ditu:

1. 51/2020 Foru Agindua, martxoaren 5koa, Datu-babeseko eta Informazioaren Segurtasuneko Batzordea sortzea onesten duena.

2. 77/2020 Foru Agindua, maiatzaren 18koa, Nafarroako Foru Komunitateko lurralderako doitzen duena apirilaren 7ko 13/2020 Errege Lege Dekretuak, nekazaritzako enpleguaren arloko presazko neurri batzuk ezartzen dituenak, 2.2 artikuluan arautzen duen hurbiltasunaren irizpidea.

3. 152/2020 Foru Agindua, abuztuaren 31koa, aldatzen duena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren irailaren 6ko 225/2018 Foru Agindua, zeinaren bidez ezartzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko nekazaritzako lan unitateak eta unitate bakoitzaren errenta.

4. 150/2020 Foru Agindua, abuztuaren 31koa, 98/2015 Foru Legea, abeltzaintzako baliabide genetikoak artatzeko laguntzei buruzkoa, aldatzen duena.

5. 64/2020 Foru Agindua, apirilaren 17koa, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren 61/2018 Foru Agindua aldatzen duena. Ingurumenaren eta nekazaritza ekologikoaren arloetako neurriei buruzko arauak.

13.KULTURA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

13.1. Planean aurreikusitakoak:

FD	Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen Erregelamendua onesten duena. ONETSI DA.
FD	Nafarroako Kirol Erregistroa arautzen duena.
FD	Kirolaren arloko lanbideetan aritzeko aldi baterako gaikuntzen araubidea onesten duena.
FA	Kirolaren arloko lanbideetan aritzeko behar den lehen sorospenetako gaitasuna egiaztatze baldintzak eta prozedura.

13.2. Planeko gainerako arauak ez onesteko arrazoiak.

Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazi dituen arrazoiak: 18/2019 Foru Legea (apirilaren 4koa, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzkoa) garatzeko hiru arau hauek 2020. urtean onesteko aurreikuspena foru legean ezarritako epealdien ondorioz ezarri zen. Horiek amaituta, bertan ezarritako betebeharrak batzuk bete behar dira.

6/2020 Foru Lege-Dekretuak (ekainaren 17koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko) 18/2019 Foru Legea (apirilaren 4koa, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzkoa) aldatu zuen (azken xedapenetako laugarrena): aurrean aipatutako epealdiak luzatu zituen eta amaitzeko datak ezarri zituen (2021. urtean eta 2022. urtean, kasuan kasukoa). Foru lege-dekretu hori Parlamentuaren Osoko Bilkurak baliozkotu zuen 2020ko ekainaren 25ean). Hitzaurrean honela arrazoitzen da lege-aldaketa egin beharra:

“Kirolaren arloan, COVID-19ak eragindako alarma-egoerak eta osasun-krisiak eragin nabarmena izan dute kirol-erakundeen jardueran, kirol-lanbideetan aritzen diren edo jardun nahi duten pertsonen jardueran, prestakuntza ematen duten zentro eta enpresetan, bai eta arlo horretan eskumena duten administrazio publikoen funtzionamenduan ere.

Hori dela eta, beharrezkoa da Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legean jasotako epeak luzatzea, epe horiek bukatu baino lehen bete behar baitira lege-testu horretan jasotako hainbat betebeharrak. Foru lege-dekretu honen azken xedapenetako laugarrenean jorratzen da gai hori.”

13.3. Planetik kanpo onetsitako arauak.


Idazkaritza Tekniko Nagusiak adierazten du 2020. urtean ez dela onetsi 2020ko Araugintza Planean ezarri gabeko araurik.

III. EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

Bildutako datuak aztertu dira eta 2020ko Araugintza Planaren edukiarekin alderatu dira. Horretan oinarrituta, txostengileek honako ondorio hauek atera dituzte:

1. Lehenbizikoa.


Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren 2020ko Araugintza Planaren edukiari zorrotz helduta, txosten honetako ondorioa nahitaez izan behar da haren % 16,84 bete dela. Beraz, kopuruak orokorrean hartuta, Planaren betetze-maila oso urritzat jo behar da.



Gainera, agerikoa da Planaren betetze-maila asko aldatzen dela departamentuen artean:


DEPARTAMENTUAK	2020ko Araugintza Planeko arauetatik onetsi direnak	2020ko Araugintza Planean aurreikusitako arauak
Lehendakaritza, Berdintasuna, Funtzio Publikoa eta Barne Gaiak	2	16
Lurralde Antolamendua, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoak	0	6
Lurralde Kohesioa	0	9
Ekonomia eta Ogasuna	6	14
Garapen Ekonomiko eta Enpresariala	1	6
Migrazio Politikak eta Justizia	0	1
Hezkuntza	0	6
Eskubide Sozialak	2	5
Osasuna	0	7
Herritarrekiko Harremanak	0	3
Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	1	2
Landa Garapena eta Ingurumena	3	16
Kultura eta Kirola	1	4

Irudikapen grafikoa:



2. Bigarrena.

Nolanahi ere, kontuan edukita COVID-19aren pandemiaren ondoriozko ezohiko inguruabarrak eta ebaluazio-jarduera orok zorrotasunaz gainera ezinbesteko dituen helburuak, mundu osoa hartu duen gaixotasun pandemiko batek sorrarazi dituen ezohiko ondorioen aurka borrokatu nahian ezinbestekotzat jo diren legegintzako neurriak ezartzeko asmoarekin onetsi diren Planean aurreikusi gabeko arauen ponderazioa ere egin behar da. Larrialdiak eragindako arautegia oso ugaria da. Ondoko irudian alderatuta ageri dira larrialdiko arauak eta 2020ko Araugintza Planaren barruan onetsitako arauak:



Ikusten den bezala, Planetik kanpo onetsitako legeria haren barruan onetsitakoa halako lau baino gehiago da. Horrek argi erakusten du pandemiak eragin izugarria izan duela, txosten honetan behin eta berriz adierazi den bezala.

3. Hirugarrena.

Planaren betetze-maila oso urria izanagatik, aurreko ondorioan azaltzen den bezala, hala ere horrek ez digu besterik gabe pentsarazi behar Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak 2020. urtean gaizki erabili duenik bere legegintzako ahalmena. Aitzitik, bigarren ondorioan azaltzen den egoera dela eta ezinbestekoa da biak batera aztertzea. Izan ere, osasun-larrialdiari aurre egiteko onetsi den legeriaren ugaritasunak Planaren burutzapenean izan den urritasuna konpentsatzen du; are gehiago, gainditu ere egiten du. Horrenbestez, hori guztia gogoan hartuta, honako hau da hirugarren ondorioa: % 16,84ko betetze-maila, oso urria izan arren, bidezkoa eta egokia da.

Iruña, 2021eko martxoaren 29a, Gobernuaren Idazkaritzako eta Araugintzako Zerbitzua.

Koordinazio Ataleko burua

*Gobernuaren Idazkaritzako eta
Araugintzako Zerbitzuko zuzendaria*

**SINADURA JATORRIZKO
DOKUMENTUAN JASOTA DAGO**

**SINADURA JATORRIZKO
DOKUMENTUAN JASOTA DAGO**

Roberto García Larrea

María Belén López Carballo